

Konplementatzaile-Sintagma nahasiak euskara-gaztelania kode-alternantzia

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Unibertsitate Masterra

Master Amaierako Lana

UPV/EHU

Alaine Barruetabeña Erdaide

Zuzendaria: Amaia Munarriz Ibarrola

2017/2018 ikasturtea

Aurkezken: 2018ko irailean

Aurkibidea

Laburpena.....	III
Laburdura zerrenda	V
0. Sarrera	1
1. Kode-alternantzia	3
1.1. Fenomenoaren deskribapena	3
1.1.1. Aldaera terminologikoak.....	6
1.1.2. Kode-alternantziaren sailkapena	6
1.1.3. Kode-alternantzia aztertzeke hurbilpen linguistikoak	8
1.2. Kode-alternantziaren murriztapen gramatikal klasikoak	9
2. Morfema-bikoizketa	13
2.1. Fenomenoaren deskribapena	13
2.1.1. Aldaera terminologikoak.....	16
2.1.2. Morfema-bikoizketaren sailkapena	17
2.1.3. Morfema-bikoizketaren orokortasunez	18
2.2. Morfema-bikoizketa azaltzeko teoriak	20
2.2.1. Matrix Language Frame (MLF).....	20
2.2.2. The Null Theory.....	23
3. Ikerketa-proposamena: konplementatzaile-bikoizketa euskara-gaztelania KAn	25
3.1. Aurrekariak	25
3.2. Euskarazko eta gaztelaniazko KONPS egiturak	27
3.2.1. Euskarazko KONPS	27
3.2.2. Gaztelaniazko KONPS	28
3.3. Euskara-gaztelania KONPS nahasietarako aurreikuspenak	28
3.4. Ikerketa esperimentalaren diseinua	38
3.4.1. Parte-hartzaileak.....	38
3.4.2. Materialak	39
3.4.3. Prozedura	40
4. Eztabaida eta ondorioak.....	42
5. Erreferentzia bibliografikoak	45
I. eranskina: Bildutako corpora.....	53
II. eranskina: Juzkuen ariketa egiteko esaldien adibideak	55

Laburpena

Lan honen helburua euskara-gaztelania kode-alternantziako (KA) konplementatzaile-sintagma (KONPS) nahasiak deskribatzen saiatzea da. Horretarako, orain arte egindako lanak jaso eta fenomeno hori berariaz aztertzeke ikerketa-proposamen bat egiten da. KA hiztun elebidun batzuek erabiltzen duten hizkuntza-baliabide bat da eta elkarrizketa berean bi hizkuntza batera erabiltzean datza. Fenomeno honen erregularitasunek hizkuntzaren prozesamenduari buruzko informazio baliagarria eskain dezakete (Beatty-Martínez, Valdés-Kroff & Dussias 2018).

KAren barruan, KONPS nahasiez hitz egingo da, horren barruan konplementatzaile morfemaren bikoizketak duen joera ulertu ahal izateko. Morfema-bikoizketa deritzo KAduen esaldi batean funtzio bera betetzen duen morfema bat baino gehiago egoteari. KAri buruzko lanak ugariak badira ere, mota honetakoak bazterrean uzteko joera egon da orainsu arte. Gainera, oso interesgarriak dira bikoizketa hauek elebidunengan baino ez baitira aurkitu (Hicks 2010, Chan 2015), beraz, hiztun elebidunaren gogoan hizkuntzek duten harremanari buruzko informazioa ematen dute. Gutxi dokumentatu izanak ez du kentzen hauek erakusten duten erregularitasuna, KAri buruzko teoria eta murriztapenak zalantzan jarriz.

Teoria eta murriztapen horiek aintzat hartuz, KONPS nahasietan KONP bikoizketarik gabeak hobestea aurreikusten da (Myers-Scotton 1993, MacSwan 2000, etab.), baina ez da hori Vergarak (2018) ateratzen duen ondorioa. Gainera, proposatutako murriztapenek aurreikusten dute KONPS nahasietan morfemei dagokien hizkuntzako hitz hurrenkera errespetatzea (Myers-Scotton 1993, Chan 2008). Hala, lan honetan KAren inguruko eta bereziki morfema-bikoizketaren inguruan literaturan egindako lanak berrikusi ondoren, KONPS nahasiak aztertzeke ikerketa-proposamen bat aurkezten da. Proposatutako ikerketa-egitasmoak gogo elebiduna ulertzeke ebidentzia berria eskainiko du.

Laburdura zerrenda

Hauek izango dira lanean erabiliko diren laburdurak:

1S = 1. pertsona subjektuarekin
komunztaduran

1SG = 1. pertsona singularra

2S = 2. pertsona singularra

3O = 3. pertsona singularra objektuarekin
komunztaduran

3PL = 3. pertsona plurala

3SG = 3. pertsona singularra

3S = 3. pertsona singularra subjektuaren
komunztaduran

A = aditza

AATZ = aditz atzizkia

ABL = ablatiboa

AKUS = akusatiboa

APL = aplikatiboa

ART = artikulua

AS = aditz sintagma

AUR = aurrizkia

BUR = aspektu burutua

DAT = datiboa

D = determinatzailea

DS = determinatzaile sintagma

EBI = ebidentziala

GEN = genitiboa

I = izena

IN = inesiboa

INDI = indikatibozko modua

INF = infinitiboa

INFL = inflexioa

INFLS = inflexio sintagma

ING = ingelesa

IR = iraupeneko morfema

IRAG = iragana

IS = izen sintagma

KAUS = mendeko perpaus kausaletako
menderagailua

KONP = konplementatzailea

KONPS = konplementatzaile sintagma

KOO = koordinaziozko juntagailua

KOP = kopula

KONS = denbora konsekitiboa

MASK = maskulinoa

NOM = nominatiboa

OH = ohitura adierazten duen morfema

PL = plurala

POS = posesiboa

POSTP = postposizioa

PREP = preposizioa

PROG = aspektu progresiboa

SG = singularra

SW = swahiliera

ZEHAZG = zehaztugabea

Letra etzanak hizkuntza aldaketa adierazten du

Belztuta agertzen dira bikoiztuta dauden elementuak

Azpimarra kasu bakoitzean mintzagai den egitura nabarmentzeko erabili da

0. Sarrera

Tradizionalki hizkuntzaren prozesamendua aztertzerakoan hizkuntza bakarrean edo elebakartasunean jarri izan da arreta (Laka, Santesteban, Erdocia & Sawiszewski 2010). Hala ere, azken hamarkadetan, elebitasunaren ikerketak indarra hartu ahala, hizkuntza eta hizkuntzek gogoan duten harremana ulertzeko kode-alternantziaren ikerketak gora egin du (Clyne 2001). *Kode-alternantzia* (aurrerantzean KA) deritzo, oro har esan, elebidunek beren bi hizkuntzen artean erraztasunez txandakatzeko duten gaitasunari (Bulllock & Toribio 2009).

Lehen hizkuntza ez menperatzearen ondorioztat hartzen zena (Weinreich 1953, Grosjean 1982), orain elebitasun maila altuaren erakusgarri dela ulertu da (Poplack 1980), eta elebitasunaren ikerketan informazio iturri paregabea eskaintzen du (Beatty-Martínez, Valdés-Kroff & Dussias 2018) KAK. Ikusi da, gramatika elebakarretan bezala, arau batzuk daudela KAn ere, eta hiztunen gramatika ezagutzeko aukera ematen duela. Ez hori bakarrik, psikolinguistikan ebidentzia garrantzitsua da hiztunek KAdun hizkuntza prozesatzerakoan, baldintza elebakarretan ikus ezin daitekeen hizkuntza-sistemaren oinarritzko dinamika aztertzeke aukera ere ematen duelako (Beatty-Martínez et al. 2018).

Halaber, hizkuntzen ko-aktibazioa KAREN funtsezko ezaugarria da: hiztunek ez dituzte bakarrik bi hizkuntzetako item lexikoak erabiltzen baizik eta hizkuntza-sistema bietako gramatikak integratzen dituzte (Goldrick, Putnam & Schwarz 2016: 860) eta hori ezin hobeto ikusten da lan honen aztergaia izango den morfema-bikoizketan.

KA erabiltzean, batzuetan, perpaus berean, funtzio bera betetzen duten morfema bi agertzen dira, hizkuntza bakoitzeko bana, (1) adibidean ikus daitekeenez. *Morfema-bikoizketa* deritzo fenomeno horri (Azuma 1993; Amuzu 2009; Hicks 2010, 2012; Chan 2015; Goldrick et al. 2016).

(1) Uste dot *como que* ezto**tela** ikusi eingotela

(Barruetabeña, argitaragabea, 1. eranskina)

KAREN barruan, morfema-bikoizketa bereziki interesgarria da hainbat autorek egitura horiek salbuespen direla eta oso banakoak edo ezinezkoak direla esan arren (Pfaff 1979; Poplack 1980; Sankoff et al. 1990; Myers-Scotton 1993...), hainbat komunitate elebidunetan lekukotu delako fenomeno (Hicks 2010: 4). Gainera, KAREN gainean aurretik egon diren teoriak, *baliokidetasun murriztapena* (Poplack 1980), *the null theory* (Mahootian 1993, Chan

2015), *Matrix Language Frame* (Myers-Scotton 1993, 2005; Myers-Scotton & Jake 1995, 2009), *minimalismoa* (MacSwan 2000), etab. zalantzan jartzen ditu.

Egitura horien azterketa sistematikoa berri samarra da (Amuzu 2009; Hicks 2010, 2012; Chan 2015; Goldrick et al. 2016), eta nahiz eta KAri buruzko lan batzuetan morfema-bikoizketa lantzen den oro har, *konplementatzailearen bikoizketari* buruzko informazio askorik ez dago. Morfema horren bikoizketari dagokion fenomeno ez da aztertu, adibidez, morfema pluralgilearen bikoizketa aztertu izan den bezala, (cf. Amuzu 2009; neurri batean, Myers-Scotton 1993, 2005, Myers-Scotton & Jake 1995).

Konplementatzaile bikoizketari buruzko lan urriak ikusita, eta euskara-gaztelania KAn halako lanik egin ez dela kontuan hartuz (beste helburu batzuekin egindako Vergara (2018) lanaz aparte), orriotan KONPS nahasiak oro har, eta KONP bikoizketa zehazki, aztertzeo ikerketa esperimental baten diseinua proposatzen da. Horretarako abiapuntua izango da gaiaren inguruan berrikusketa lana, eta nik bildutako hizketa espontaneoko corpus txikia. Euskara-gaztelania hizkuntza-konbinaketan oinarritutako ikerketa-proposamen honetatik lor litezkeen datuek morfema-bikoizketaren eta, oro har, KAren murriztapen gramatikalen inguruan informazio baliagarria eskain dezakete.

Lan honen azken helburua, beraz, euskara-gaztelania KAKo KONPS nahasiak aztertu eta deskribatzeko ikerketa-proposamen bat aurkeztea da, horren barruan KONP bikoizketei arreta berezia jarritz.

Lana honela antolatuko da: 1. atalean, KAZ hitz egingo da, lehenbizi berau deskribatu (1.1) eta ondoren, fenomenoarentzako proposatu diren murriztapen gramatikal klasikoak ekarriz (1.2). Hurrengo atala morfema-bikoizketari eskaintzen zaio, fenomenoaren deskribapena (2.1) eta KAKo teoria nagusiek morfema-bikoizketa nola azaltzen duten ikusiz (2.2). Hirugarren atalean nire ikerketa-proposamena aurkeztuko da: lehenbizi, KONP morfemaren bikoizketaz euskaran dauden aurrekariak ekarriko dira (3.1) eta jarraian KONPS egiturak euskaraz eta gaztelaniaz nolakoak diren laburbilduko da (3.2). Ondoren, ikerketa horretan izango ditudan helburuak eta ikerketa galderak aurkeztuko dira eta ordura arte ikusitakoa oinarri, ikerketa honetarako ditudan aurreikuspenen berri emango da (3.3). Azkenik, 3.4 azpiatalean aurreikuspen horiek testatzeko esperimentuaren diseinua proposatuko dut parte-hartzaile, material eta prozedurak zehaztuz. Amaitzeko, 4. atalean eztabaida eta ondorio nagusiei egingo zaie lekua.

1. Kode-alternantzia

Atal honetan KA zer den ikusiko da, deskribapen orokor bat emanaz. Gainera, kontzeptu horrek dituen aldaera terminologikoak, KA motak eta honek zientziara egin ditzakeen ekarpen nagusiak aurkeztuko dira. Horrez gain, KAren murriztapen gramatikal klasikoak ere azalduko dira.

1.1. Fenomenoaren deskribapena

Kode-alternantzia hizkuntza-kontaktuaren fenomenoetako bat da, komunitate elebidunetan gertatzen dena, norbanako elebidunen artean. Hiztun elebidunek hizkuntza biak erabiltzen dituzte sarri elkarrizketa berean, perpausetan bertan. Kode-alternantzia deritzogu, beraz, hizkuntza (edo barietate) bi (edo gehiago) aldi berean erabiltzeari, elkarrizketa edo esaldi bakarrean biak tartekatuz eta batetik bestera salto eginez (Myers-Scotton 1993; Clyne 2001: 242). Itxuraz, inolako kostu edo zailtasunik gabe (Meuter & Allport 1999; Costa, Santesteban & Ivanova 2006; Bullock & Toribio 2009; Gullifer, Kroll & Dussias 2013) egiten dute hori elebidunek, betiere argitasun funtzional eta pragmatikoa gordez, komunikazioa oztopatu gabe, alegia (López-Morales 1993: 173; Heredia & Altarriba 2001: 164).

Fenomeno hedatua da KA munduko hainbat komunitate elebidunetan, horren adibide dira ondorengo esaldiak.

(2) Sometimes I'll start a sentence in Spanish y *termino en español*

ingeleza-gaztelania (Poplack 1980: 581)

(3) xob pas *falsk-an* pesa-â

hara bada faltsu-KOP3PL mutil-PL

“hara bada mutilak faltsuak dira”

persiera-suediera (Naseh Lotfabbadi 2002: 101, apud Bullock & Toribio 2009: 3)

(4) *Les autres pourraient [sic] parler français comme lui*, ya know

“Besteek, hark bezala, frantsesa hitz egin dezakete, badakizu”

Frenchvilleko frantsesa-ingeleza (Bullocken landa-oharrak, apud Bullock &

Toribio 2009: 4)

Euskal Herrian ere ohikoa da ondorengo (5-6)ko perpausen modukoak entzutea testuinguru informaletan.

- (5) a. Mutil hori *el estudiante* da
 b. Zer iruditzen zaizun, *nosotros ya te preguntaremos*
 c. Soldatarekin guztora ez, ala? *¡Nos ha fastidiado!*

euskara-gaztelania (Etxebarria 2003: 12-13)

- (6) a. [...] Ba, zintzurreko minarekin heldu naiz, *mal à la gorge. Je viens de prendre de la menthe* [...]
 b. Gaxinto ateratzen da *au balcon de la mairie*

euskara-frantsesa (Epelde & Oyharçabal 2010: 55, 59)

Horrelako hizkuntza-alternantziak hain dira ohikoak gizarte elebidunetan, non hori baita, testuinguru informalean, hizkera *ez-markatua*, arruntena edo ohikoena autore batzuen ustez (Álvarez-Cáccamo 1998; Meeuwis & Bloemhart 1998; Myers-Scotton 2002; Mondada 2007; Epelde & Oyharçabal 2010; Lantto 2012; Ibarra 2011, 2013).

Weinreich (1953) edo Grosjean (1982) bezalako lan klasikoetan KA hizkuntza ondo ez menperatzearen ondorioztat hartzen zen. Poplackek (1980: 615-616), berriz, oso bestelako iritzia agertu zuen, bere ustez KA erabiltzea bi hizkuntza oso ondo menperatzearen erakusgarri da, honako aipu honetan ikus daitekeen moduan:

“code-switching is a verbal skill requiring a large degree of linguistic competence in more than one language, rather than a defect arising from insufficient knowledge of one or the other. [...] It is also striking that precisely those switch types which have traditionally been considered most deviant by investigators and educators, those which occur within a single sentence, are the ones which require the most skill. They tend to be produced by the 'true' bilinguals [...] Code-switching, then, rather than representing deviant behaviour, is actually a suggestive indicator of degree of bilingual competence.”

Alegia, Poplacken arabera, elebidunen hizkuntza-gaitasunaren adierazle da KA. Horren adibidetzat jartzen du ondokoa: adjektiboen posizioa kontrakoa da ingelesez eta gaztelaniaz, hain zuzen, gatazka hori saihesteko ez da ia *izen+adjektibo* KARik agertzen bere corpusean: horrelakoak %1a baino gutxiago direla aipatzen du. Bere esanetan, hiztunak hizkuntza bakoitzetik beste hizkuntzak ere konpartitzen dituen arauak baino ez ditu erabiltzen KARako eta horrek erakusten du hiztunak ezagutza nahikoa behar duela hizkuntza bietan. Horregatik hartzen da KA hizkuntza-gaitasunaren adierazletzat.

KA bi hizkuntzetako hitzen txandakatzea dela esan dugu, baina KA aztertzean, batzuetan ikus daiteke, hitz edo item bakarra txertatzen dela beste hizkuntzan. Halere, KA ez da *mailegatzearen* fenomeno bera.

Campbell-en (2004) hitzetan, mailegutzat hartzen da beste hizkuntza batetik hartutako item lexikoa. Izatez, mailegua ez da hizkuntza hartzailearen hiztegiaren parte, baina beste hizkuntza horrek hartu eta bere hiztegiaren parte egin du, berera moldatuz. Alegia, hitzak mailegatzerakoan, hizkuntza hartzailearen egitura fonologiko eta morfologikora moldatuz.

KAn, berriz, ez da aipatutako moldaketa hori gertatzen, ez dago moldatzeko asmorik ere. Myers-Scotton-en (1993) arabera, desberdintasuna da ea hizkuntza bateko hitza beste hizkuntzaren lexikoan sartu den ala ez; elebidunek baino ez badarabilte, orduan KAn ondorio izango da eta ez mailegua. Era berean, aintzat hartzekoa da KA eta mailegatzea biak direla prozesu beraren parte, hasieran elebidunen KAn baino agertzen ez den item bat gerora elebakarren hiztegi mentalean ere sar daitekeelako.

Sankoff eta lankideentzat (1990) bi fenomenoak, mailegaketa eta KA, oso prozesu desberdinak dira, funtzionamenduari dagokionez, behintzat. Hauek esaten dutenez,

“Code-switching within the confines of a single sentence requires access to the syntactic apparatus of both languages, because, as is generally observed, each of the monolingual fragments making up a codeswitched sentence is internally grammatical by the rules of its language. Borrowing on the other hand operates independently of the grammar of the donor language, though it may involve lexical items from that language that are not yet incorporated into the monolingual vocabulary of the host language, and these items may retain aspects of the donor language phonology.” (Sankoff et al. 1990: 72)

Lan honetan KAz arituko gara eta mailegatzearengandik fenomeno bereizitzat joko da.¹

Jarraian jasoko denez, KAri buruzko ikerketan askotariko terminologia eta sailkapenak erabiltzen dira, fenomenoari heltzeko ikuspuntuak eta fenomenoaren ulertzeko moduak baldintzatuta, hein handi batean.

¹ KAn eta mailegatzearen arteko harremanari buruzko eztabaida honetaz gehiago jakiteko Poplack, Wheeler & Westwood (1990), Sankoff, Poplack & Vanniarajan (1990), Myers-Scotton (1993), Muysken (2000), MacSwan (2005), beste batzuen artean.

1.1.1. Aldaera terminologikoak

Lan honetan *kode-alternantzia* (*code-switching* ingelesez) terminoa erabiliko den arren, badaude beste izen batzuk ere fenomeno beraz hitz egiteko. Ezeizabarrena eta Munarriz (2011) edota Goldrick et al. (2016) lanetan beste termino bat darabilte: *hizkuntza-nahasketaz* edo *code-mixingaz* hitz egiten dute.

Halere, autoretik autorera aldatu egiten da bi termino horien erabilera, Redouane (2005: 1921) lanean, adibidez, hizketan hizkuntzaz aldatzea da *codemixing*, hizkuntzak txandakatzeko ekintza bera, eta bi hizkuntza horien nahasketatik ateratzen den beste bariazio hori izango litzateke *codeswitching*, ekintzatik sortzen ekoizpena.

Rotaetxek (1999) eta beste autore batzuek (cf. Grosjean 1990; Meisel 1990) KA eta kode-nahasketa bi fenomeno bereizi direla diote. Lehena arautua da, baina bigarrena ez. Alegia: adibidez, haurrek bi hizkuntza ezagutzen dituztenean, baina ezagutza hori orekatua ez denean, hizkuntzak nahastera eraman ditzake horrek, baina hizkuntzak menperatu ahala, nahaste horiek urrituz doaz. KAn, hiztuna oso kontziente da kodeak txandakatzen dituelakoaz (Rotaetxe 1999: 61).

Beste batzuek, Paradis-ek (2004) edo Di Sciullo, Muysken & Singh-ek (1986) esaterako, *code-switching* nahiz *code-mixing*, bata zein bestea, berdin erabiltzen dituzte. Poplackek (1980) KA eta mailegutza artean bereizketa egiten duen bezala, Pfaff (1979) eta Romaine-k (1986) *mixing* darabiltenean *mailegutza* eta KA biak barne hartzen dituzte eta Wentz eta McClure-k (1977) ere berdin KA terminoarekin. Epelde eta Oyharçabal (2010) lanean *hizkuntza lerratzeaz* hitz egiten dute. Singh (1985) eta Bokambarentzat (1988, apud Bisang 2003: 10), *kode-nahasketa* esaldiaren muga barnean gertatzen den alternantzia da.

Termino horien artean, lan honetarako, aipatutako beste autore askok bezala, *kode-alternantziaren* aldeko hautua egin da, *kode-nahasketa* baztertuz, bigarren hori zerbait arautugabekotzat eta inolako mugarik gabekotzat har baitaiteke (Bullock & Toribio 2009).

1.1.2. Kode-alternantziaren sailkapena

Beheko adibideetan ikus daitekeenez, diskurtsoari eta esaldiari begiratuta, hizkuntza-aldaketa leku eta modu desberdinetan egiten dute hiztunek. Batzuetan hizkuntza biak txandakatuta ageri dira esaldi berean (7), edo jarraian doazen bi perpaus bakoitza hizkuntza batean ageri da (8). Beste batzuetan bigarren hizkuntza horrek hitz betegarri gisa jokatzen du (9). Gauzak horrela, literaturan, nagusiki, hiru motatako KAK aipatu ohi dira: *esaldi barrukoak*

(*intrasentential*), *esaldien artekoak (intersentential)* eta *esaldiz kanpokoak (extrasentential* edo *tag switching*) (Poplack 1980; Appel & Muysken 1987; Clyne 2001). Esaldi barruko KAetan hizkuntza-aldaketa esaldiaren mugen barruan gertatzen da (7). Esaldien arteko KAetan hizkuntza aldaketa hori esaldi mugetatik kanpo gertatzen da, esaldi bat amaitzean, hurrengoa beste hizkuntza batean hasiz (8). Eta esaldiz kanpoko KAetan, tartekatzen direnak *tag hitzak* edo *etiketak* dira (9).

(7) a. Baina nire familien afiliaturik ez dago, *bueno* afiliaturik *ni simpatizantes tampoco*, orduen *difícilmente*.

(Lantto 2012: 33)

b. Oial bat ematen zen *sur le mariés*

(Epelde & Oyharçabal 2010: 59)

(8) a. Juaten banaiz, *la voy a liar*

b. Hasten zera hitz egiten berarekin eta *te suelta algún comentario así borde como que...* bukatzeko harremana

(Ibarra 2014: 31-32)

(9) a. *¡No pasa nada!* Norbaitek zerbitzatu behar du hanburgesak, norbaitek konpondu behar du frigorifikoa...

b. Gehienez egon behar zara paron bi hiyaute, *no te hagas ilusiones*.

(Ibarra 2014: 33)

Artean, KA erabili ahal izateko hiztunen elebitasun-maila altuaz aritu gara, baina *bigarren hizkuntzan* (H2) oso trebeak ez diren hiztunek ere KA egiteko gaitasuna daukate, betiere beste maila batean. Esaterako, ez dituzte (7) bezalako esaldi barruko KAK ekoitziko, baina bai (9) bezalako esaldiz kanpoko txandakatzeak. Lanttok (2012), Bilbo inguruko euskaldun zaharren eta berrien KA aztertu zuenean, azken horien diskurtsoan *tag-switching* delakoa baino ez zuen aurkitu, esaldiz kanpoko KAN aurkitzen denetakoa. Hau da, euskara H2 zutenen euskarazko diskurtsoan diskurtso markatzaileak, esaerak, gaztelaniazko hitz lexiko batzuk soilik txertatzen zituzten.

Horiez gain, txandakatzea pertsona beraren edota mintzakideen artean gertatzen den, beste bereizketa hau egiten da: *hizkideen arteko KA (interindividual)* eta *hitz txanda barruko KA (intraindividual)* (Ezeizabarrena 2015; Manterola & Ezeizabarrena 2005; Ezeizabarrena & Aeby 2010). Aurretik aipatutako (1-9) adibide guztiak hitz txanda barruko KAK dira, hau da, hizketan ari den pertsona berberak txandakatzen ditu bi hizkuntzak. Hizkideen arteko KA deritzo, berriz, elkarrizketa batean parte hartzen duten mintzakide batetik bestera hizkuntza

aldatzeari, hots, batak hizkuntza batean hitz egin eta besteak beste hizkuntza batean erantzuteari, ikus (10) adibidea.

(10) Helduak gaztelaniaz: están comiendo

Haurrak euskaraz: *han*

Helduak gaztelaniaz: ¿dónde están? (Ezeizabarrena 2015: 216)

1.1.3. Kode-alternantzia aztertzeko hurbilpen linguistikoak

KA hainbat ikuspegitatik aztertu izan den gaia da, nagusiki soziolinguistikatik, linguistikatik eta psikolinguistikatik (ikus Bisang 2003 eta Bullock eta Toribioren 2009 berrikuspenak).

Soziolinguistikan, KAK egitura sozialen berri eman dezake, norbanakoaren baitan zein gizarte edo komunitate mailan aztertuz. Hurbilpen etnografiko eta komunikatiboak hiztunaren asmoak aztertzen ditu (cf. Tay 1989; Stroud 1990); beste hurbilpen batek KAK-aren hiztunak dituzten jarrerak aztertzen ditu (Gibbons 1983; Bentahila 1983; euskaraz: Rada 2015), eta hurbilpen funtzionalistak KAK elkarrizketan dituen funtzioak aztertzen ditu (Auer 1981; Gumperz 1982; euskaraz: Muñoa Barredo 2003; Ibarra 2011, 2014; Lantto 2012, 2015). Azken hori da gure artean gehien landu dena. Horren arabera, hizketan funtzio ugari bete ditzake KAK eta hainbat arrazoiengatik jo dezake hiztunak baliabide horretara, besteak beste: hiztegi falta saihesteko, esandakoari adierazgarritasuna emateko, beste baten edo norberaren hitzak berrekartzeko. KA erabiltzeko funtzioak, esan bezala, soziolinguistikaren aztergaia dira eta beraz, nire lan-esparrutik kanpo geratzen da².

Linguistikan abiapuntutzat hartzen da KA ez dela librea, murriztapenak edo arauak daudela (ikus 1.2 zehaztasunetarako), zerbait egituratua dela. Hain zuzen horregatik, KA hurbilpen estrukturalistatik aztertzen duten autoreek hizkuntza-jakinek dituzten murriztapenak (cf. Timm 1975; Pfaff 1979; Rotaetxe 1999) edo murriztapen unibertsalak proposatu dituzte (cf. Poplack 1980; Di Sciullo et al. 1986; Myers-Scotton 1993). KAK berak hizkuntzaren egituraketari buruzko informazioa eman dezake maila guztietan (lexikoa, fonologikoa, morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa), nahiz eta gehien aztertu dena maila morfosintaktikoa izan den. Gainera, KA hizkuntza “puruak”³ dituzten murriztapen eta printzipio berberak

² Gaiaz gehiago jakiteko, nazioartean, Gardner-Chloros (2009a, 2009b), euskaraz, Muñoa Barredo (2003), Ibarra (2011, 2013, 2014), Lantto (2012, 2015), Rada (2015), besteak beste.

³ Chan 2009, 2015, Müller & Cantone 2009, Ferguson 2001 lanen haritik, *hizkuntza “puruak”* erabiliko da lan honetan elebidunen hizkuntza bakoitzari, elebakarraren hizkuntzari, erreferentzia egiteko.

arautzen dutela onartuz gero (*The Null Theory*, ikus Chan 2008; minimalismoa, ikus MacSwan 2000, 2005), hizkuntza-gaitasunari buruzko iturri ezinhobea eskaintzen duela diote autoreek (Chan 2008: 778, beste batzuen artean).

Azkenik, hurbilpen psikolinguistikoan, KAn parte hartzen duten hizkuntzen gramatiken interakzioa aztertzen da (cf. Macnamara 1971; Clyne 1980; Grosjean & Soares 1986; Manterola & Ezeizabarrena 2005; Costa et al. 2006; Epelde & Oyharçabal 2010; Munarriz & Parafita-Couto 2014; Parafita-Couto, Munarriz, Epelde, Deuchar & Oyharçabal 2015), bi hizkuntzak kontrolatzen dituzten mekanismo kognitiboak eta egitura neuroanatomikoak ikertuz. Era berean, ekoizpen, pertzepzio eta jabeakuntza elebidunaren atzean dauden mekanismo kognitiboak ulertzeko aukera ematen du KAK.

Bide beretik, López-Moralesen (1993: 166) ustez ere KAK, beste kontaktu fenomeno batzuekin batera (interferentziak eta mailegatzeak, besteak beste), bidea ematen du hiztun elebidunen gogoaren funtzionamendu linguistikoa aztertzeko. Hain zuzen, eztabaida dago ea elebidunengan bi gramatikak bereizten diren, hirugarren gramatika batek barne hartzen dituen bi hizkuntzen gramatikak, hortik KAK erakusten duen erregularitasuna (Sankoff & Poplack 1980, apud López-Morales 1993), ala osagai batzuk bakarrik (lexikoa, perpaus egituraren arauak, hitz eraketarako arauak, etab.) konpartitzen diren. KAK eztabaida horiek argitzeko datu baliagarriak eskaintzen ditu.

1.2. Kode-alternantziaren murriztapen gramatikal klasikoak

KAn ez da dena libre eta ezin da edozer edozein modutara txandakatu. Corpus lanek agerian utzi dute KA mota batzuk oso ohikoak direla, eta beste batzuk oso gutxitan (edo inoiz ez) agertzen direla. Hortaz, adituek diote hizkuntza “puru”etan bezala, murriztapen eta lege batzuek arautzen dutela KA (Poplack 1980; Myers-Scotton 1993; MacSwan 2000; Clyne 2001; Chan 2008, 2015; Bullock & Toribio 2009; Hicks 2010, beste askoren artean)⁴.

Poplackek (1980) bere lan aitzindarian ingelesa-gaztelania KA ikertu zuen 1.835 KAdun esaldiko New York hirian jasotako corpus batean. Bertako KAKaren ezaugarriak aztertu ondoren, KAn klasikotzat jotzen diren bi murriztapen gramatikal proposatu zituen: *baliokidetasun murriztapena (equivalence constraint)* eta *morfema askearen murriztapena*

⁴ Lan honetan KAKo murriztapen nagusiak, eta ikerketa-proposamenerako aurreikuspen esanguratsuak egiteko balio dutenak, baino ez dira aipatuko, gehiago ere badaudela jakinda ere. Tartean, *Buru Funtzionalen murriztapena* (Belazi, Rubin & Toribio 1994, apud MacSwan 2000: 41), *Buruaren murriztapena* (Santorini & Mahootian 1995, apud MacSwan 2000: 40), *Gobernu Murriztapena* (Di Sciullo et al. 1986, apud Bisang 2003: 16; Clyne 2001: 250) edo *KAdun Ekoizpenetarako murriztapena* (Sankoff 1998, apud Hicks 2010: 34), adibidez.

(*free morpheme constraint*). Baliokidetasun murriztapenaren arabera, KA hizkuntza bietako elementuek hizkuntza bien arau sintaktikoak apurtzen ez dituzten puntuetan gertatuko da, hau da, bi hizkuntzen azaleko egiturek bat egiten duten puntuetan (ikus Clyne 2001 antzeko beste proposamenetarako). Morfema askearen murriztapenak dioenez, KA intrasententziala denean, hizkuntzaz aldatzeko, morfemak askeak izan behar dira.

Hala ere, lan berean, autoreak berak, murriztapen horiek apurtzen direla ikusi zuen: adibidez, (11)an baliokidetasun murriztapena apurtzen da, izenarekiko adjektiboaren kokapenak ingeleseko arauak hausten baititu, nahiz eta gaztelaniarenak bete. (12)ko adibidean, ostera, morfema askearen murriztapena da apurtzen dena, esamolde idiomatiko jakinen barruan aldatuz hizkuntzaz. Poplacken ustez, horrelakoak ez dira onartzen. Kasu horretan, “marido y mujer” esamolde idiomatikoa apurtu egiten da.

(11) Tenían patas flacas, pechos *flat*

(12) Estamos como marido y *woman*

(Poplack 1980: 600)

Ordutik, hainbat kontradibide aurkitu dira hainbat hiztun komunitate eta corpusetan, tartean, euskara-gaztelania (Parafita-Couto, Munarriz et al. 2015), nahuatlera-gaztelania (MacSwan 2000), gaztelania-ingelesa (MacSwan 2000), papiamento-holandesa (Parafita-Couto & Gullberg 2017), ingelesa-galesa (Parafita-Couto, Deuchar & Fusser 2015) baten batzuk aipatzekotan. Adibide zehatz bat ikustearren (13)ko determinatzaile sintagmetan, euskara-gaztelania elebidunek ekoitzitako euskarazko hitzak daude gaztelaniazko artikularekin. Aipatutako murriztapenen arabera, euskarazko izen bat ezin da gaztelaniazko artikularekin joan, batetik euskaraz artikulua izenaren ostean kokatzen delako eta gaztelaniaz izenaren aurretik, eta, bestetik, gaztelaniak genero gramatikala duelako eta euskarak ez. Gainera, euskaraz, artikulua ez da morfema aske bat. Hala ere, KA hori gertatu egiten da.

(13) a. la *idazlana* c. el *txano* e. la *izerdia* g. el *ipurdi*
b. la *piperra* d. los *kuleros* f. la *pitxia* h. los *liburus*

(Parafita-Couto, Munarriz et al. 2015: 308)

Izan ere, hiztun elebidunek badauzkate horrelako gatazka guneei irtenbidea emateko baliabideak. KAn, *gatazka-guneak* deritze bi hizkuntzen gramatikak bat ez datozen ezaugarriei. Adibidez, gaztelaniak generoa dauka, baina euskarak ez (13). Beraz, bi hizkuntza horietan elebiduna den hiztun batek erabaki egin behar du zein hizkuntzaren ereduari jarraitu KA darabilenean. Kasu horretan *generoa bai/ez* izango litzateke bi hizkuntza horien arteko gatazka-

gunea eta generoa erabiltzearen aldeko hautua egiten bada, hiztunak erabaki behar du zein genero dagokien euskarazko hitzei. Hala, kasu bera litzateke ingelesa-gaztelaniarena ere. Berdin gertatzen da papiamento eta holandesarekin edota ingelesa eta galesarekin ere adjektibozen hitz hurrenkerari dagokionez (Munarriz & Parafita-Couto 2014).

Beheko (14) eta (15)eko esaldietan, berriz, nahuatlera-gaztelania eta euskara-gaztelania ekoizpenak daude, hurrenez hurren. (14)an *nik* nahuatlerazko morfema lotu bat da gaztelaniazko aditzari lotzen zaiona. (15)ean, aldiz, gaztelaniazko *-ar* aditzak sortzeko atzizkia eta plural morfema dira euskarazko hitzei lotzen zaizkienak, biak ala biak morfema lotuak. Beraz, ikus daitekeenez, Poplackek (1980) proposatutako bi murriztapen horiek hainbatetan urratzen dira corpusetan.

- (14) Ne *nikamaroa* in Maria
 ne ni-k- amar- oa in Maria
 nik 1S-3O-maitatu-AATZ ART Maria
 “Nik Maria maite dut”

nahuatlera-gaztelania (MacSwan 2000: 38)

- (15) *Tenemos que aztertuar las* aditzas

euskara-gaztelania (Barruetaña, argitaragabea, 1. eranskina)

Azumaren (1993) *Hitzaren kategoriaren arabera murriztapenak* dioenez, esaldi barruko KAn, kategoria irekietako itemek (izenak, inflexiorik gabeko aditzak) bakarrik har dezakete parte, ez kategoria itxietakoek (juntagailuak, denborazko morfemak, kasu-atzizkiak, pre/postposizioak, konplementatzaileak). Horren froga gisa erabiltzen ditu bikoizketadun esaldiak (ikus 2. atala): bere esanetan, bikoiztutako elementu bien artean agertzen den eta bi hizkuntzen arteko zubi-lana egiten duen osagarriak kategoria irekietakoak dira beti. Ondorio horretara heltzeko bi oinarri hartzen ditu: batetik, elementu komuna kategoria itxikoa duten mota horretako esaldirik ez dela dokumentatu, eta, bestetik, bere lekukoek onargaitzat hartzen dituztela elementu komuna kategoria itxikoa duten bikoiztutako egiturak. (16)n esaterako, zubi-lana egiten duena, eta beraz, KA eragiten duena, kasu-atzizki bat da eta bere berriemaileek onargaitzat jo zuten.

- (16) *Kinoo **tomodachi** kara *my friend I heard the news*
 atzo lagun ABL nire lagun 1SG entzun ART albiste
 “Atzo nire lagunarengandik jaso nuen berria”

japoniera-ingelesa (Azuma 1993: 200)

Azkenik, Chanek (2008) *KAn hitz hurrenkera buru funtzionalek zehazten dutela* proposatu zuen. Aurkako hitz hurrenkera duten hainbat hizkuntza paretan literaturan jasotako KAK aztertu ondoren, ikusi zuen alternantzia hori elementu funtzional baten (burua) eta lexiko baten (osagarria) artean gertatzen zela kasu guztietan: D baten eta IS baten artean (17), INFL eta ASaren artean (18), KONP eta INFLSren artean (19) eta PREP/POSTP baten eta DS baten artean (20). Kasu guztietan hitz hurrenkera zehazten duena buru funtzionala da. Beheko adibideetan horixe ikusten da hain zuzen ere, buruaren hizkuntzak erabakitzen duela buruaren eta osagarriaren arteko hurrenkera. Autoreak aipatzen du ez dela oraindik dokumentatu bien arteko hurrenkera osagarriak zehazten duen adibiderik.

- (17) e wo green dress ko
bera-IRAG soinean eraman berdea soineko D/ART

“berak soineko berdea zeraman”

adañme-ingelesa (Nartey 1982: 187, apud Chan 2008: 796)

- (18) don't tambae pyo
ez.ezazu zigarro erre

“ez ezazu zigarrorik erre”

ingelesa-koreera (Nishimura & Yoon 1998: 127, apud Chan 2008: 798)

- (19) I am out of town ira malhaseyo
ni nago kanpo ABL herri KONP esan
“esan iezaiozu herritik kanpo nagoela”

ingelesa-koreera (Nishimura & Yoon 1998: 128, apud Chan 2008: 800)

- (20) Ram woods par kavitaa likhataa hai
Ram basoa IN poemak idazten3SG da
“Ramek basoan poemak idazten ditu”

hindi-ingelesa (Pandit 1986: 102, apud Chan 2008: 801)

Preposizio/postposizioen kasuan buru funtzionalak ala lexikoak diren adostasunik egon ez arren, KAn hitz hurrenkera ezartzerako orduan, buru funtzionalek bezala jokatzeko dutela dio Chanek, hitz hurrenkera erabakitzen baitute (ikus 20).

Honekin guztionekin ondoriozta daiteke, oraindik ez dela proposatu murriztapen bat hizkuntza-pare guztietako adibideetarako baliagarria dena: hizkuntza pare batzuentzako balio duten murriztapenak beste batzuetan ez baitira betetzen. Nolabait esan, orokortasun deskriptiboak dira.

2. Morfema-bikoizketa

Atal honetan lan honen muina izango den gaiari helduko zaio, morfema-bikoizketari, alegia. Aurreko atalean bezala, hemen ere, lehenbizi, morfema-bikoizketaren deskribapena aurkeztuko da, terminologia kontuak, sailkapenak eta fenomenoak dituen orokortasunak aipatuz. Jarraian, KArako proposatutako teoria desberdinek morfema-bikoizketa nola azaltzen duten erakutsiko da.

2.1. Fenomenoaren deskribapena

KAn badaude kasuak, non funtzio berean hizkuntza bakoitzeko morfema bana agertzen den, *morfema-bikoizketa* deritzo fenomeno horri (Azuma 1993; Amuzu 2009; Hicks 2010, 2012; Chan 2015; Goldrick et al. 2016). Morfema-bikoizketak dituzten sintagmen egitura honela irudika daiteke (Chan 2015: 2):

(21) $[X_S X_A [Y_S (Z_S)] X_B]$

(A hizkuntza buru-lehena da eta B hizkuntza buru-azkena)

Chanek (2015: 2) dio “irudikapen horretan, X, bikoiztutako elementua buru bat dela eta partekatzen duten elementua buru horren osagarria, YS”, kasu batzuetan osagarri bat baino gehiago izan dezake buru horrek, hortik (ZS) ere agertzea.

Bikoizketa hori da, adibidez, 1.2 ataleko genero gatazkako adibideetako batzuetan (13) ikus daitekeena, hona (22) bezala berrekarrria. Kasu horietan determinatzailea izan da bikoiztu dena eta gaztelaniazko artikuluz gain, euskarazkoa ere agertzen da.

(22) a. **la idazlana** c. el *txano* e. **la izerdia** g. el *ipurdi*
b. **la piperra** d. los *kuleros* f. **la pitxia** h. los *liburus*

(Parafita-Couto, Munarriz et al. 2015: 308)

Aurreko (22)ko artikulua bikoizketaz gain, beste hainbat hizkuntza-paretan ere dokumentatu den fenomeno da, eta gainera, bikoizten diren morfemak ere askotarikoak dira. Adibidez, pluraleko morfema (23), izenordaina (24), adposizioa (25), preposizio/postposizioa (26), infinitiboazko morfema (27), aditza (28), juntagailua (29), kasu marka (30), konplementatzailea (31), besteak beste.

- (23) nye *younger brother-s-* **wó** kata wó *shave-* na...⁵
 1SG anaia gazte- PL(ING)-PL(SW)- guztiak 3PL bizarra egin OH
 “nire anaia gazteago guztiek bizarra egiten dute...”
ewe-ingelesa (Amuzu 1998: 72, apud 2009: 72)
- (24) *Ya’ni* **’ana I** was really lucky⁶
 Esan nahi dut ni ni izan.IRAG.1SG benetan zorioneko
 “Esan nahi dut nik benetan zorte ona izan nuen”
arabiera-ingelesa (Eid 1992: 59, apud Bisang 2003: 12)
- (25) a. I think it was **about** five dollars a pound *gurai yo*
 1SG uste 3SG izan.3SG.IRAG inguru bost dolar ART.ZEHAZG libera inguru
 “Uste dut bost dolar inguru izan zela libera bakoitza”
ingelesa-japoniera (Nishimura 1995: 167)
- b. *más o menos* zortzirek **bueltan** aillegeko gara
euskara-gaztelania (Barruetabeña, argitaragabea, 1. eranskina)
- (26) Eta gainera apurtxo bat be bai, *por la militanciagatik*
euskara-gaztelania (Lantto 2012: 33)
- (27) [...] trois quarts *ya ba-* jeune-s **ko-comprend-re** [...]
 hiru laurden IN AUR-gazte- PL INF-uler- INF
 ‘[...] gazteen hiru laurdenek ez zuten ulertu [...]’
lingala-frantsesa (Bokamba 1988: 37, apud Myers-Scotton & Jake, 1995: 1000)

⁵ Amuzuk (2009) bere corpusean ikusi zuen eweko eta ingeleseko morfema pluralgilea bikoiztuta agertzen denetan, beharrezkoa ewe hizkuntzako pluralgilea zela *wó* eta ingelesezkoa *-s* erredundantea. *Sistema morfemen printzipioak* (ikus 2.2.1 atala) egiten du ewezko pluralgilea agertu beharra, KAdun egituretan hizkuntza matritetik hartzen baitira morfema kritikoenak. Autoreak ikusi zuenez, *-s* pluralgilea ingelezko hitzekin bakarrik agertzen zen. Kontua da ingelesezko pluralgilea ingelesezko hitz lexikoekin batera aktibatzen dela, baina maila funtzionalean ez dela interpretatzen. Hori dela eta, ewezko pluralgilea aktibatu behar da, dagokion funtzioa betetzeko.

⁶ Bentahila eta Daviesek (1983, apud Bisang 2003: 12) arabiera-frantsesa KA aztertu zuten eta Eidek (1992, apud Bisang 2003: 12) arabiera-ingelesa. Adibide horretan arabiera-ingelesa KAn izenordain bikoizketa dagoela dio Eid-ek (1992: 59-62). Arabierazko izenordain subjektuaren ostean ingelesezko izenordain subjektua agertzen da eta jarraian ingelesezko predikatu bat. Lan bietan diotenez, bikoizketa gertatzen da izenordain subjektua arabierakoa denean eta predikatua ingelesez/frantsesez agertzen denean, baina inoiz ez alderantziz (Bisang 2003: 12-13). Hala ere, bi lanek modu desberdinean azaltzen dute bikoizketa hori. Bentahila eta Daviesek (1983, apud Bisang 2003: 12) diote frantsesez izenordain subjektua derrigorrezkoa dela beste ageriko subjekturik ez dagoenean eta hau aditzari klitizizatzen zaiola. Arabieraz, berriz, izenordain subjektua aukerazkoa da; enfasia emateko baino ez da erabiltzen. Frantseseko derrigortasun horrek dakar bikoizketa autore hauen ustez. Eidek (1992, apud Bisang 2003: 12), ostera, arabierazko subjektu-aditz komuntadura sistemari egozten dio bikoizketa, non aditzak generoa, numeroa eta subjektuaren pertsona islatu behar dituen.

- (28) let's **become** *kechi ni naroo*
 goazen bilakatu estu bilakatu
 “Goazen estu bilakatzera”
ingelesa-japoniera (Nishimura 1986: 166, apud Hicks 2010: 81)
- (29) **pero sorro -sti** wali astuturi-tajna...
 baina azeria -KOO oso zuhur -3.SG.IRAG.EBI
 “Baina azeria oso zuhurra zen...”
gaztelania-aymara (Stolz 1996:10, apud Hicks 2010: 79)
- (30) Shadow bin jak jat ngarlu, **brom** jat karnti-**nginyi**.
 IZENA IRAG erori ART ezti, ABL ART zuhaitz-ABL
 “Shadowek erlauntza zuhaitzetik erorarazi zuen”
*gurindji kreolera*⁷ (Meakins 2011: 34)
- (31) a. just **because** *avaa innoru* color and race **engindratunaale**
 bakarrik KAUS 3PL desberdin kolore KOO arraza KAUS
 “Kolore eta arraza desberdina izanagatik bakarrik”
ingelesa-tamil (Sankoff et al. 1990: 93)
- b. Everybody **think that** *nay-ka yenge-lul cal hanta-ko sayngkakhayyo*
 Denek uste KONP ni-NOM ingelesa-AKUS ondo egin-KONP uste
 “Denek uste dute ingeles hitzun ona naizela”
- c. Many people **told** [me] **that** *cey-ka hankwukcek-ita-ko malhaysseyo*
 asko jende.NOM esan ni.DAT KONP ni-NOM korear-itxura-KONP esan
 “Jende askok esan dit korear-itxura dudala”
ingelesa-koreera (Park 1990: 103, apud Chan 2015: 3)
- d. *lo que pasa es que* prebentzio bésala eman zijola...
euskara-gaztelania (Etxebarria 2003: 13)
- e. Bai, gañera, **si** ez **basara** joaten, ni...
euskara-gaztelania (Rotaetxe 1999: 69)

Euskara-gaztelania KAn, Aurrekoetxea eta Unamunoren (2011: 28) aipamen txiki bat eta Vergararen (2017) esperimentuaz gain, ez da morfema-bikoizketa berariaz aztertu, nahiz eta morfema-bikoizketa duten zenbait adibide lekukotu diren. Esaterako, aipatutako Parafita-Couto, Munarriz eta lankideen (2015) lanean genero gatazka aztertzean determinatzaile

⁷ Kreolera baten adibidea da (30)koa. Bertan *brom* preposizioa ingelesezko *from*-etik hartua da eta *gurindji* hizkuntzako atzizkiarekin batera agertzen da; kreolerak, beraz, morfologia bikoitza du kasu atzizkiei dagokienean.

bikoitzeko hainbat sintagmaren berri eman zuten. Lanttok (2012) ere badakar preposizio/postposizio bikoitzeko adibide bat (26), baita Etxebarriak (2003) (31d) eta Rotaetxek⁸ (1999) (31e) ere konplementatzaile bikoitzeko perpaus bana.

Adibide guzti horiek erakusten dutenez, batzuetan morfemak bikoiztu egiten dira, eta esanahi edo funtzio bereko morfema bana agertzen da hizkuntza banatan, hots, morfema-bikoizketa dago.

2.1.1. Aldaera terminologikoak

KA fenomenoan gertatzen den moduan, aldakortasun terminologikoa ageri da KAren barruan aztergai dugun egitura zehatzari erreferentzia egitean ere, hain zuzen morfema-bikoizketari.

Gehien erabiltzen diren bi terminoak dira *morfologia bikoitza* (*double morphology*, Myers-Scotton 1993) edo *morfema-bikoizketa* (Aurrekoetxea & Unamuno 2011). Horrela adierazten dute funtzio bera betetzen duen hizkuntza banatako morfema bana agertzen dela, nolabait esan, itxura fonetiko desberdineko morfema bera bikoiztuta agertzen delako (Hicks 2010: 41-51), nahiz eta jatorriz, termino horrek hizkuntza bakarreko bikoizketei erreferentzia egiten dien. Bide beretik doaz *bikoizketa morfo-sintaktikoa* (*morphosyntactic doubling*) (Hicks 2010, 2012) eta *egitura bikoizketa* (*doubling constructions*) (Goldrick et al. 2016) terminoak ere.

Askotan agertzen den beste termino bat *portmanteau egitura* da⁹ (*portmanteau constructions/sentences*, Azuma 1993; Nishimura 1995; Chan 2015).

Horiez gain, badaude arrakasta askorik izan ez duten beste izen batzuk ere fenomeno bera izendatzeko: *alternantzia palindromikoa* (*palindromic switch*) (Sankoff et al. 1990: 92), *itzulpen kopia egiturak* (*copy translation construction* Poplack et al. 1990: 396, apud Hicks 2012: 45) edo *itzulpen errepikapen egiturak* (*repeated translated constituents*) (Sankoff 1998: 15-17).

Guzti horien artean, lan honetan *morfema-bikoizketa* da erabiliko den terminoa, batetik hori baita euskaraz erabili dena (Aurrekoetxea & Unamuno 2011) eta nazioartean gehien erabiltzen dena eta, bestetik, fenomenoaren modu garden batean deskribatzen duelako.

⁸ Rotaetxek (31e) txartzat ematen du, bikoizketak ezinezkotzat joz.

⁹ Kasu honetan, Chanek (2015: 5) berak ere aitoritzen duenez, termino hori ez da guztiz egokia, jatorrizko adieran bi hitzen nahasketatik sortutako hitzei erreferentzia egiten baitie, adibidez: *ofimatika* (oficina+informatika).

2.1.2. Morfema-bikoizketaren sailkapena

Lan honetan aztergai den morfema-bikoizketari dagokionez ere, mota desberdinak bereizten direla dio Hicksek (2010: 13-20). Autore honek *lekuko bikoizketa (local doubling)* eta *urruneko bikoizketa (distant doubling)* bereizten ditu. Lehenengoaren barruan *kateatutako lekuko bikoizketa (concatenative local doubling)* eta *hitz askoko lekuko bikoizketa (multiword local doubling)* daudela dio. Sailkapen hori egiteko esaldiaren barruan morfema bakoitzak duen posizioa hartzen du kontuan.

Lekuko bikoizketa deritzo bikoiztutako elementuak bata bestearen ondoan daudenean (32). Urrunekoa, ostera, bikoiztutako elementuak beste elementu lexiko nahiz gramatikal batek edo gehiagok bereizten dituenean (33). Era berean, lekuko bikoizketa bi motatakoa izan daiteke: kateatutako lekuko bikoizketa da hizkuntza bietako morfemak elkarri kateatuta agertzen direnean, (32a) adibidean ikus daitekeenez. Hitz askokoa da, bestalde, bikoizten dena, morfema bat izan beharrean, hitz bat edo gehiago direnean, esaterako (32b). Bien arteko desberdintasun handiena da, Hicksek (2010) dioenez, lehenengoan bikoiztutako elementuak elkarri erantsita doazela eta bigarreanean elementu bikoiztuak beregainak direla.

(32) a. Abi zaten *led- en-ler-in* yarı-sı

Anaia dagoeneko bazkide-PL- PL- GEN erdi-POS

“Anaia, bazkideen erdiek...”

nederlandera-turkiera (Backus 2003: 93, apud Hicks 2010: 14)

b. Er zieht **den Ropp die rope down**

Bera.MASK tiratu ART soka ART soka behera

“Berak sokari beheraka tiratzen dio”

alemaniera-ingelesa (Clyne 2001: 261)

Adibide horietan KAn parte hartzen duten bi hizkuntzek tipologikoki bat egiten dute, hau da, (32a) adibideko bikoiztutako elementua postposizio bat da bai nederlandera, baita turkieraz ere. (32b)n ere, alemanierak eta ingelesak hitz hurrenkera bera erakusten dute DS barneko elementuetan, biak dira buru-lehenak, baita perpausean duten posizioari dagokionez ere. Baina urruneko bikoizketaz dihardugunean, tipologikoki kontrakoak izan ohi dira hizkuntzak, horrela bikoiztutako elementuak elementu horren osagarriaren bi aldetara agertzen dira.

Ondorengo (33) adibidean, aurretik (27) zena, esaterako, infinitiboa adierazteko morfema aurizki bat da lingala hizkuntzan, baina atzizki bat frantsesez. Ikus daitekeenez,

infinitebozko atzizkien osagarria den aditzaren alde banatara agertzen dira, infinitebozko morfemei dagokien posizioan. (29)n, hona (34) bezala berrekarrian, juntagailua da izenaren bi aldetara ageri dena eta (35)n, aurretik (31b) zena, aldiz, konplementatzailea, dagokion aditzarekin; erdian konplementatzaile biei dagokien osagarria (mendeko perpausa kasu honetan) dago. Azken bikoizketa mota hau da lan honetan aztertuko dena.

- (33) [...] trois quarts *ya ba-* jeune-s **ko**-comprend-**re** [...]
 hiru laurden IN AUR-gazte-PL INF-uler- INF
 ‘[...] gazteen hiru laurdenek ez zuten ulertu [...]’
lingala-frantsesa (Bokamba 1988: 37, apud Myers-Scotton & Jake 1995: 1000)
- (34) **pero sorro -sti** wali astuturi-tajna...
 baina azeria -KOO oso zuhur -3SG.IRAG.EBI
 “Baina azeria oso zuhurra zen...”
gaztelania-aymara (Stolz 1996: 10, apud Hicks; 2010: 81)
- (35) Everybody **think that** *nay-ka yenge-lul cal hanta-ko sayngkakhayyo*
 Denek uste KONP ni-NOM ingelesa-AKUS ondo egin-KONP uste
 “Denek uste dute ingeles hiztun ona naizela”
ingelesa-koreera (Park 1990: 103, apud Chan 2015: 3)

Ondorengo orrietan fenomenoaren orokortasun batzuekin jarraituko dugu, honek ere murriztapen edo erregularitasun zenbait erakusten baititu.

2.1.3. Morfema-bikoizketaren orokortasunez

Bikoiztutako morfemak edo hitzak askeak (24-25), (28), (31a), zein lotuak (27) izan daitezke bi hizkuntzetan edo, (23), (26), (29-30) eta (31b-e)n bezala, hizkuntza bateko morfema askea eta besteko lotua agertzea ere posible da.

Chanek (2015: 4) egitura bikoiztuak dauden corpus guztietan egitura ez-bikoiztuak ere badaudela ikusi zuen. Horrek erakusten du, autorearen ustez, bikoizketak aukerazkoak direla. Hala ere, bikoizketak daudenetan, hiru erregularitasun aurkitu zituzten bai Chanek (2015), baita Hicksek (2010) ere:

1) Buru batzuk ez dira bikoizten, bikoizketa mota hori osagarriak hartzeko ahalmenarekin lotu baitzuen Chanek (2015). Bikoiztutako elementuak osagarriaren muga bietan kokatzen dira, baina izenek, adjektiboek, modalek eta juntagailuek ezin dutenez osagarriarik zuzenean hartu (osagarri bat hartzeko konplementatzaile, preposizio... bat behar

dute), elementu horiek ezin dira bikoiztu. Hortaz, bikoiztu daitezkeen buruak aditzak, aditz laguntzaileak, pre/postposizioak (edo adposizioak), konplementatzaileak, menderagailuak eta DSren barruko buru funtzional batzuk dira. Chanek dio, salbuespenak salbuespen¹⁰ buru sintaktiko moduan funtzionatzen duten beste kategoria batzuk, hots, izenak, adjektiboak, aditz modalak edo juntagailuak ez direla oraindik dokumentatu.

2) Osagarriak ez dira inoiz bikoizten, burua izan ohi da bikoizten dena (Chan 2015; Hicks 2010). Horren atzean *Theta irizpidea* (Chomsky 1981, apud Chan 2015) dagoela dio Chanek. Irizpide horren arabera, a) theta rol bakoitza argumentu bat eta bakarrari esleitzen zaio, eta b) argumentu bakoitzari theta rol bat eta bakarra esleitzen zaio. Osagarria bikoiztuko balitz, SOVO egitura izango genuke eta aipatutako *a* baldintzaren arabera, osagarrietako batek ez luke theta rolik izango. SVOV egituretan, nahiz eta aditza bikoiztuta egon, osagarriari esleitzen dioten theta rola bat eta bera da, horregatik, aurrekoak ez bezala, bikoizketa horiek posible dira.

3) Hitz-hurrenkera buruaren hizkuntzaren arabera da (Chan 2015), hala bikoiztutako elementuek dagokien gramatikako hitz hurrenkera errespetatzen dute (Hicks 2012: 47). Hizkuntza bat buru-lehena bada, bikoiztutako elementua osagarriaren aurretik agertuko da eta hizkuntza buru-azkeneko bikoiztutako elementua osagarriaren atzetik.

Halaber, hainbat autorek adierazi dutenez, bikoizketa gertatzea ahalbidetzen duena da Poplackek (1980), Di Sciullo eta lankideek (1986) aipatutako bateragarritasun printzipioa ez betetzeak, hau da, hizkuntza bien hitz-hurrenkera aurkakoa izateak (cf. Nishimura 1995: 167; Muysken 2000: 104; Hicks 2010: 18; Chan 2009, 2015: 2), aurreko adibide guztiek erakusten duten legez ((23) salbuespena). Hori ikusten da japoniera-ingelesa hizkuntza parean aurkitutako adibideetan (Nishimura 1995; Azuma 1993) edota tamil-ingelesa hizkuntza parean lekukotutakoetan (Sankoff et al. 1990), berdin marathi-ingelesaren kasuan ere (Hicks 2010, 2012), beste batzuen artean, baita euskara-gaztelanian ere, konplementatzaile bikoizketari, pre/postposizioari edo artikularen bikoizketari dagokienez, adibidez. Horietan guztietan japonieraren, tamilaren, marathieraren eta euskararen hitz hurrenkera OV da eta ingelesarena eta gaztelaniarena VO. Beste kasu batzuetan, hizkuntza biak izan daitezke SVO hurrenkeradunak, baina preposizio/postposizioetan aurkakotasuna egon, adibidez, txinera kantonera postposizioduna da eta ingelesa preposizioduna (Chan 2015, apud Chan 2015). Muyskenek (2000: 4) ere, frantsesa eta nederlanderaren artean, Treffers-Daller (1994) lanean

¹⁰ (34) adibidea litzateke salbuespena, non juntagailua bikoizten den, baina mota horretako bikoizketak oso arraroak dira, ez baitira batere ohikoak juntagailua bigarren osagaiaren ostean jartzen duten hizkuntzak (Chan 2015: 7).

bikoizketarik ez agertzearen arrazoia, ustez, bi hizkuntza horien antzekotasun tipologikoan datzala dio. Gainera, bikoizketetan bikoiztuta agertzen diren elementuek jatorrizko hizkuntzan¹¹ dagokien hitz hurrenkera errespetatzen badute (ikus gorago, 3. erregulartasuna), ez dute baliokidetasun murriztapena betetzen.

2.2. Morfema-bikoizketa azaltzeko teoriak

Ondoren aurkeztuko diren teoriak KA azaltzeko proposatu dira, baina zehaztasunak egiten dituzte morfema-bikoizketarako.

Hainbat dira KA psikolinguistikaren ikuspegitik azaltzen ahalegintzen diren teoriak, baina orain indarrean dauden artean nagusiak honako hauek dira: *Matrix Language Frame (MLF)* (Myers-Scotton 1993, 2005; Myers-Scotton & Jake 2009) eta *The Null Theory* (Mahootian 1993; Chan 2008), azken horren barruan, *The Minimalist approach* (MacSwan 2000, 2005). Horien artean, MLF KA berriaz azaltzeko sortutako teoria da. *The Null Theory*, aldiz, KAK hizkuntza “puruek” bezala funtzionatzen duela onartzen du eta KA hizkuntza-gaitasunaren beste adierazle baten gisa aztertzen. Jarraian teoria nagusi horiek berrikusten dira.

2.2.1. *Matrix Language Frame (MLF)*

MLFren arabera, *Hizkuntza Matrizea (HM)* (*Matrix Language (ML)*) eta *Txerto Hizkuntza (TxH)* (Epelde & Oyharçabal 2010) (*Embedded Language (EL)*) bereizten dira KAn. Hizkuntza matrizea deritza KAn parte hartzen duten bi (edo gehiago) hizkuntzetatik egitura morfosintaktikoa jartzen duenari. Normalean, aditza edo morfema funtzionalak jartzen dituen hizkuntza izango da HM, gehienetan, hiztunaren hizkuntza nagusia izan ohi dena. Hizkuntza matrizea elkarrizketan zehar aldatuz joan daiteke. Txerto hizkuntza, aldiz, KAKo beste hizkuntza da, rol txikiagoa duena. TxHko elementuak HMren markoan txertatzen dira (Myers-Scotton 1993). HMren gramatikak zehazten ditu esaldi barruko KAKo *HM+TxHko osagaien* egitura morfosintaktikoa (bi edo hizkuntza gehiagotako morfemak¹² dituztenak) (36) eta *HM uharteenak* (bere osotasunean HMko morfemez eratutako osagaiak) (37). Bada hirugarren

¹¹ Lanean zehar, jatorrizko hizkuntzaz hitz egiten denean, KAn parte hartzen du(t)en hitz hori(ek) hartu d(ir)en hizkuntzaz ari gara. Hau da: (39)ko esaldi horretan *ma* pluralgilearen jatorrizko hizkuntza swahiliera da eta gainerakoarena ingelesa. Beraz, jatorrizko hizkuntzaren hitz hurrenkera errespetatzen dela esaten denean, adibidez, esan nahi da, kasu horretan, esaterako, pluralgilea izenaren aurretik agertzen dela swahilieraz eta atzetik ingelesez.

(39) *ma*-ghost-s

PL(SW.)-mamu-PL(ING.)

“mamuak” *swahiliera-ingelesa* (Myers-Scotton 2005: 340)

¹² Myers-Scottonek (1993) *morfema* hitza zentzu zabalean darabil eta morfematzat hartzen ditu hitz lexikoak ere.

osagai bat MLF teorian: *TxH uharteak*, zeintzuk bere osotasunean TxHko morfemez eratuak dauden (38) (Myers-Scotton 1993).

(36) La organización empezó en nineteen seventy-six

swahili-ingelesa (1993: 123)

(37) Ni-me-maliz-a ku-tengenez-a vitanda ni-ka-wash all the

1SG-BUR-amaitu-INDI INF-konpondu-INDI 8 ohe 1SG KONS garbitu guztia ART

clothing na wewe bado maliza na *kitchen*. Ni nini u-na-fany-i-a

arropa eta zu oraindik amaitu eta sukalde. 3SG izan.zer 2SG-PROG-egin-APL-INDI
huko?

hor?

“Oheak egiten amaitu dut eta arropa guztiak garbitu ditut eta zuk oraindik ez duzu sukaldearekin amaitu. Zertan ari zara hor?”

swahili-ingelesa (1993: 80)

(38) Wache mimi nielekeee tauni, tukutane this evening at the usual place.

gera gaitezen

“Joan egingo naiz herrira heldu ahal izateko, gera gaitezen gaur gauean betiko lekuan”

swahili-ingelesa (1993: 140)

Halaber, eredu horrek *sistema-morfemen* eta *edukizko morfemen* artean bereizketa egiten du, ondokoak dira (Myers-Scotton 1993: 98, 2005: 337-338, 2009; Amuzu 2009):

- a) *edukizko morfemak (content morphemes)*: rol tematikoak esleitzen/jasotzen dituztenak, i. e. izenak, aditzak, adjektiboak, adberbioak, besteak beste.
- b) *sistema-morfemak (system morphemes)*: rol tematikorik esleitzen/ jasotzen ez duten inflexioak eta elementu funtzionalak.

I. *sistema goiztiarreko morfemak (early system morphemes)*: edukizko morfemekin batera agertzen dira, edukizko morfema horren esanahia zehazteko, i. e. pluralgileak, erakusleak, konplementatzaileak, etab.

II. *sistema berantiarreko morfemak (late system morphemes)*

- i. *sistema berantiarreko zubi-morfemak (late bridge system morphemes)*: beraien eginkizuna dagokion hizkuntzan ondo osatutako ekoizpen bat sortzeko elementuak elkarrekin lotzea da. Adibidez, ingelesezko eta frantsesezko *it* eta *il* espletiboak *it rains* eta *il pleut* bezalako egituretan, hurrenez hurren.

- ii. *sistema berantiarreko kanpoko morfemak (late outsider system morphemes)*:
elementu gramatikal kritikoak, i. e. aspektua, denbora, modalak, komunztadura,
kasu atzizkiak, etab.

Morfema bat HM+TxH KAn ager daitekeen ala ez hitz horren estatusak adieraziko du. MLFren arabera TxHn edukizko morfemak nahiko era askean ager daitezkeen arren, ez da hori sistema-morfema guztien kasua; sistema berantiarreko kanpoko morfemak adibidez, hizkuntza matrizekoak baino ezin daitezke izan.

Morfemen sailkapen horrek bere *Iriste desberdinen hipotesia (Differential access hypothesis)* azaltzeko balio du (ikus Azuma 1993 antzeko proposamen baterako):

“The different types of morpheme under the 4-M model are differentially accessed in the abstract levels of the production process. Specifically, content morphemes and early system morphemes are accessed at the level of mental lexicon, but late system morphemes do not become salient until the level of the formulator” (Myers-Scotton 2002: 78, apud 2005: 339).

Hipotesi horren bidez azaltzen du, besteak beste, morfema-bikoizketa. Erabili beharreko hitzak, aipatutako ordenan aukeratzean, koordinazio errore baten ondorioztat jotzen ditu bikoizketak, dagokion morfema behar ez denean hartu delako. Izan ere, Myers-Scottonek (2005: 340-341) morfema-bikoizketari azalpena eman nahian, dio *hizkuntza matrizean txerto hizkuntzako* edukizko morfema (e. g. izena, aditza, etab.) bikoiztutako delako morfemarekin (e. g. pluralgilea, erakuslea, etab.) batera hartzen duela hitzuna, nahiz eta egitura morfosintaktikoak aipatutako hizkuntza matrizeko morfema bakarrik onartu. Bere esanetan, hori bakarrik gerta liteke *sistema goiztiarreko morfemekin*, kategoria funtzionaleko morfema horiek, beraien buruekin batera, kontzeptualki aktibatzen baitira. Beheko (39) adibideari erreparatuz, pluralgilea bikoiztuta agertzen da. Txertatzen den hizkuntzako egitura osoa (e. g. izena+plural marka) hartu ondoren, kasu horretan *ghost+s*, gehitzen zaio hizkuntza matrizeko morfema, *ma-*. Ondorioz, bi morfema izango ditu ekoizpenak funtzio bera betetzen, *ma-ghost-s*. Gauzak horrela *Morfologia Bikoitzaren printzipioaz* hitz egiten du:

“In cases where affixes from both the ML and EL appear with a noun or verb stem and therefore may be construed as competing, only one affix ‘wins’. The doublet matching the language of other system morphemes controlling relationships in the constituent (e. g. affixes marking case, tense, etc.) will be the ML affix” (Myers-Scotton 1993: 133).

- (39) *ma*-ghost-s
PL(SW.)-mamu-PL(ING.)
“mamuak”

swahiliera-ingelesa (Myers-Scotton 2005: 340)

Era berean, Myers-Scottonek (1993, 2002, 2005) bere *Matrix Language Frame*aren hipotesian bi murriztapen aipatzen ditu: *Morfemen hurrenkeraren printzipioa* (*Morpheme-order principle*) eta *Sistema morfemen printzipioa* (*System morpheme principle*). Lehengoaren arabera, morfemen hurrenkerak ezin du hizkuntza matrizearen morfema hurrenkeraren aurka joan. Bigarrenak dioenez, sintaktikoki beharrezkoak diren morfema guztiak hizkuntza matritzetik hartuak izan behar dira. Txerto hizkuntzak, beraz, edukizko hitzak baino ez ditu ematen.

2.2.2. *The Null Theory*

Elebakarren sintaxia ere gobernatzen duen aparatu sintaktikoaren arabera azaltzen dira KAKo datuak *Null Theory*ren arabera eta ez dago elebidunaren bi hizkuntzak (edo gehiago) gobernatzen dituen hirugarren gramatika baten beharrik (Chan 2008: 777-778).

Hizkuntza-gaitasunean, KAn nahiz testuinguru elebakarrean, bereizi egiten dira kategoria lexiko eta funtzionalak. Kategoria lexikoetan (A, I) buru-osagarri hurrenkera dagokion parametroak ezartzen du, baina KAn balio hori buruari ez dagokion hizkuntzak ezar dezake. KAn parametroaren balioa buruari ez dagokion hizkuntzak, alegia, osagarriak, ezartzea, posible da burua parametroa ezarri ondoren aukeratzeko delako (Levelt 1989, apud Chan 2008) eta elebidunak bi hizkuntzetako buru lexikoak eskura dituelako. Kategoria funtzionaletan (D, INFL, KONP), aldiz, buru-osagarri hurrenkera ezaugarri lexiko gisa zehazten da eta buru funtzionalen osagarriak nekez agertuko dira dagokien lekutik kanpo (Chan 2008). Alegia, kategoria funtzionaletan buru funtzionalaren hizkuntzaren hurrenkera mantendu behar da, baina kategoria lexikoetan ez.

Beraz, hizkuntza “puruak” eta KAK berdin funtzionatzen badute, morfema-bikoizketa arazotsua da *Null Theory*rentzat, elebakarrek ez baitute horrelako bikoizketarik erabiltzen¹³ (Chan 2015: 8). Hala ere, bikoizketak azaltzeko elebidunek buru-osagarri hurrenkera biak aktibatzen dituztela dio Chanek (morfema-bikoizketa gertatzeko tipologikoki hitz hurrenkera

¹³ KAKo eta hizkuntza “puru”-etako morfema-bikoizketaren arteko desberdintasunetarako, ikus Chan 2015 eta Hicks 2010.

aurkakoa izan behar dute KAKo hizkuntzek, ikus 19. orrialdea) eta bi hizkuntzetako sinonimoekin gauzatu. Nahiz eta itxura fonetikoa desberdina izan, forma biak sarrera lexiko bereko hitz bera dira (2008: 12).

*The Null Theory*ren barruan, *The Minimalist Approach* (MacSwan 2000) deiturikoa sartzen da. Minimalisten ustez, elebidunek hitz egiten dituzten hizkuntzetako Lexikoiak banatuta dituzte, eta lexikoi bakoitzak bere hitzak osatzeko hatsarreak eta bere sistema fonologikoa ditu, horrela KAdun esaldi batean erraza da identifikatzen zein hizkuntzatatik hartu den item bakoitza (MacSwan 2000, 2005). Ikuspuntu horretatik KA bi hizkuntzetako (edo gehiagoko) itemak konbinatzearen ondorio izan daiteke, ezaugarriak aukera lexiko zabal batean txertatuz eta ondoren, hizkuntza “puruetan” bezala, bateragarritasuna egiaztatuz. Ezaugarri horiek KAn parte hartzen duten hizkuntzekin bateragarriak izan behar dira (van Gelderen & MacSwan 2008: 767).

Horretaz gain, autore horiek aipatzen dutenez, KAn sistema fonologikoak ezin dira nahastu, ahoskaezinezko egiturak sortzen baitira; hori da elebidunak ezagutzen dituen hizkuntzetako lexikoiak banatuta egotearen atzean dagoen arrazoia, haien ustez (2008: 768). Horregatik dira onargaitzak **eat-iendo* bezalako Poplackek (1980) aipatutako formak, baina onargarriak *parqueando* bezalako maileguak, gaztelaniara egokitutako fonologiarekin (MacSwan 2000: 46).

Morfema-bikoizketari dagokionean, Chanek (2015) dionez, programa minimalistarentzat KAn fenomeno hau egotea arazotsua da, ezin baitu esanahi identikoa duten bi hitzen aldibereko presentzia azaldu. Bere esanetan, egitura hauek sintaxi zuzena litzatekeenetik kanpo geratuko liriateke, nahiz eta murriztapenek baldintzatutako eredu sintaktiko errepikakorrak erakusten dituzten.

KAK hizkuntza “puruek” bezala funtzionatzen badu, KA erabiltzean ere, hizkuntza bakarrean mintzatzean bezala, eta aurretik ikusitako adibide gehienetan agertu bezala, espero izatekoa da funtzio bat betetzen duen osagai bakarra egotea, dena delako hizkuntzan dela, hizkuntza ekonomiagatik baino ez bada ere.

3. Ikerketa-proposamena: konplementatzaile-bikoizketa euskara-gaztelania KAn

Atal honetan, aurretik emandako informazio guztia aintzat harturik, KONPS nahasiak ikertzeko esperimentu baten diseinua proposatuko da. KONPS nahasiak aztertuz, euskara-gaztelania KAn konplementatzaile morfemaren bikoizketak dituen joerak ulertu nahi dira. Horretarako, lehenik eta behin, gai horrekiko euskaran dauden aurrekarietaz arituko naiz, nire corpus txiki bat ere gehituz atalari. Jarraian, euskarazko eta gaztelaniazko KONPS egiturak nolakoak diren azalduko da eta gero euskara-gaztelania KONPS nahasiak ikertzeko arrazoiak eta ikerketa-galderak agertuko dira, hortik azalduko teoria eta murriztapenen arabera aurreikuspenetara pasatuz. Azkenik, ikerketa-esperimentalaren diseinuaren nondik norakoak kontatuko dira parte-hartzaileen profila, materialak eta prozedura zehaztuz.

3.1. Aurrekariak

KONPS nahasiak gutxi ikertu badira, are gutxiago dira KONP bikoizketa, berariaz, aztertu duten lanak. Euskara-gaztelania KAn konplementatzaile morfemaren bikoizketa erakusten duten esaldi bana dokumentatu dute Etxebarria (2003) eta Rotaetxe (1999): aurretik (31d) eta (31e), hona (40) eta (41) bezala berrekari direnak.

(40) *lo que pasa es **que** prebentzio bezala eman zijo**la**...* Etxebarria (2003: 13)

(41) Bai, gañera, *si* ez basara joaten, ni...

Rotaetxe (1999: 69)

Etxebarria (2003: 13) *lokuzio idiomatiko* bezala sailkatzen du eta horrelako egiturak berariaz aztertzen ez baditu ere, aipatzen du esaldi hori, beste batzuekin batera, baliokidetasun murriztapenaren eta morfema askeren murriztapenaren arabera, baliozkoak direla. Rotaetxe (1999: 69), berriz, (41)ko esaldiari buruz dio *si* eta *ba-* perpaus berean egoteak, hots, morfema beraren bikoizketak, bi gramatiken arauak hausten dituela.

Vergarak (2017) berriki egindako ikerketa esperimental batean, beste helburu batzuekin bada ere, gaia aztertu zuen: KAko konplementatzaileen bikoizketa aztertu zuen euskarazko konplementatzaileek *beti* FinP-ren burua betetzen dutelako hipotesia deuseztatzeko.

Bertan, baiezko eta ezezko menpeko perpaus osagarriak dituzten KAdun esaldiak aztertu zituen beste era bateko esaldiekin batera onargarritasun juzkuen ariketa batean, eta tartean konplementatzaile bikoizketa zutenak zeuden (perpaus osagarriak guztiak). Horretarako, Bilboko 20 euskara-gaztelania aldibereko elebidunen datuak jaso zituen (guztiak erabiltzen dute KA egunerokotasunean). Item esperimentalen erdiek gaztelaniazko *que* konplementatzailea zeramatzen euskarazko *-(e)la*, *-(e)nik* edo \emptyset -dun konplementatzaile perpaus

baten aurretik. Parte-hartzaileei eskatu zitzairen onargarritasun juzkuak egiteko 1-7 puntuko Likert eskala batean oinarrituta.

Lau emaitza nagusi atera zituen: 1) konbinazio posible guztien artean, (42a) modukoak ziren onargarritasun altuena lortu zutenak, alegia, konplementatzaile bikoitzekoak, 2) (42b) bezalako konplementatzailerik gabeko esaldiak edo baiezko euskarazko *-(e)nik* konplementatzailedundunak (42b') zalantzarik gabe jo zituzten onargaitzat, 3) ezezko esaldietan, gaztelaniazko *que* konplementatzailearen ostean nahigo zuten *-(e)la* *-(e)nik* baino, (42c)n bezala eta 4) ezezko esaldietan, gaztelaniazko *que* konplementatzailea falta denetan, nahigo izan zuten *-(e)nik* *-(e)la* baino, (42d)ren antzera.

- (42) a. Pedro cree **que** *Jon etorri dela*
b. *Pedro cree *Jon etorri da* b'. *Pedro cree *Jon etorri denik*
c. Pedro no cree **que** *Jon etorri dela* c'. Pedro no cree **que** *Jon etorri denik*
d. Pedro no cree *Jon etorri dela* d'. Pedro no cree *Jon etorri denik*

(Vergara 2017: 7-8)

Nik bildutako hizketa espontaneoko adibideetan ere (ikus I. eranskina) konplementatzaile bikoitzeko adibide gehienak menpeko perpaus osagarriak dira (43) eta (44), nahiz eta badauden denborazko (45), konparaziozko (46) eta ondoriozko (47) esaldi bana ere.

- (43) a. *Cómo que* hil ein dala?
b. *Apuesto lo que sea a que* ez dala etorko
c. *Me da que* dana peteta egongo dala
d. *A no ser que* ya osasunegaitzik eitzenzule
e. *Se supone que* deitzu ein biztiela
f. *Ya que* etorri nazen, eñ eingogu, ezta?
(44) Esazgue *como que* badauela pintxopo[te]
(45) Furgoan goaz, *como cuando* Portugalera juañ giñenien
(46) Gurau dot untxe eñ *que* gero pelmadie emoten eukitzie **baño**
(47) Hainbeste euri bota deu *que* kaliepe errekak emoten dabiela

euskara-gaztelania (Barruetabeña, argitaragabea, 1. eranskina)

Aurreko (43) eta (44)ko adibideetan gaztelaniazko *que* menderagailua esamolde edo egitura handiago baten parte da (esamolde horiek azpimarratuta daude adibideotan). Egitura horiek gaztelaniaz (*cómo que*, *apuesto a que*, *me da que*, *a no ser que*, *se supone que*, *como que*) bere horretan erabiltzen dira *que* eta guzti eta esaldi horietan ere osorik ageri dira. Alegia,

badirudi hiztunek, nolabait, gaztelaniazko fraseologia hori erabiltzen dutela esaldi nagusian eta hor txertatzen dutela gero euskarazko perpausa.

MLFaren arabera bi modutara azal daiteke morfema-bikoizketa hori: 1) gaztelaniazko esamoldeak bere horretan hartzen dira eta gerora gehitzen dira euskarazko konplementatzaileak (ikus Amuzuk 2009: 164 pluralgileen bikoizketarako ematen duen azalpena, 5. oin-oharra). Horren arabera, derrigorrezkoa perpaus nagusiko aditzari dagokion hizkuntzako konplementatzailea da HM (43) eta (44) adibideetan; (43f)n, adibidez, euskarazkoa da beharrezkoa eta gaztelaniazkoa erredundantea izango litzateke, esaldia sortzeko prozesuan gertatutako “mistiming”-aren ondorioz hartua (Myers-Scotton 2005: 340). 2) morfologia bikoitzaren printzipioaren arabera (Myers-Scotton 1993: 133), ostera, egituran dauden beste sistema-morfemekin bat egiten duen hizkuntzako konplementatzailea, kasu honetan, gaztelaniazkoa litzateke HM (43) eta (44)n eta beraz, ken daitekeena euskarazkoa litzateke. *Cómo que, apuesto a que, me da que, a no ser que, se supone que, como que, como cuando...* moduko egiturek osatuko lukete HM.

Era berean, bildutako datuen arabera, konplementatzaile bikoitzeko adibideetan bi konbinazio agertu dira: a) perpaus nagusia eta menderagailua gaztelaniaz eta ondoren menpeko perpausa+menderagailua euskaraz (43)ko adibideetan bezala eta b) perpaus nagusia euskaraz, menderagailua gaztelaniaz, eta ondoren, mendeko perpausa+menderagailua euskaraz (44-47) adibideen haritik.

3.2. Euskarazko eta gaztelaniazko KONPS egiturak

Aztergai izango diren KONPS nahasien egiturak esaldi barruko KA dira. Baina KONPS nahasien egiturak nolakoak izan daitezkeen ikusi aurretik, hizkuntza bakoitzean egitura horiek nolakoak diren ikusiko da atal honetan.

3.2.1. Euskarazko KONPS

Euskara hizkuntza eranskaria da eta morfemak, batez ere, lotuak dira. Hurrenkera nahiko askea duen arren, oinarritzko hitz-hurrenkera SOV da (Elordieta 2008). Horrela, hizkuntza buru-azkena izanik, konplementatzailea bere osagarriaren eskumatara kokatzen da, amaieran.

(48) [Amaiak erosi duen] liburua irakurrita daukat

(49) a. Mireiak sofa zaharra bota du [apurtuta zegolako]

b. Mireiak sofa zaharra bota du, [apurtuta baitzegoen]

- (50) [Euria egiten badu], zinemara joango gara
 (51) a. Julenek esan du [ogia erosiko duela]
 b. Julenek ez du esan [ogia erosiko duenik]

Hala ere, (49b) eta (50) begiraturaz gero, menderagailua aurretik ageri dela ikusiko dugu. Euskaraz, baldintzazko menpeko perpausak egiteko menderagailua (50) osagarriaren aurretik kokatzen da; kausalek (49), berriz, bi aukerak eskaintzen dituzte.

3.2.2. *Gaztelaniazko KONPS*

Gaztelania, ostera, hizkuntza flexiboa da, SVO oinarrizko hurrenkeraduna, baina, euskarak bezala, hurrenkera nahiko askea du (Elordieta 2008). Hizkuntza buru-lehena da, eta, beraz, konplementatzailea bere osagarriaren ezkerretara kokatzen da, menpeko esaldiaren hasieran, (52)-(55) adibideek erakusten duten moduan.

- (52) El libro [que ha comprado Amaia] lo tengo ledo
 (53) Mireia ha tirado el sofá viejo [porque estaba roto]
 (54) [Si llueve], iremos al cine
 (55) a. Julen ha dicho [que va a comprar pan]
 b. Julen no ha dicho [que vaya a comprar pan]

Goiko (51)ko adibideak, aurreko (55)koekin alderatuz, ikus daiteke, euskaraz perpaus osagarriak sortzeko menderagailua aldatu egiten dela perpausa baiezkoa ala ezezkoa izan. Baiezkoetan (51a) *-(e)la* menderagailua erabiltzen da eta ezezkoetan (51b) (eta galderetan) *-(e)nik*. Gaztelaniaz, *que* da kasu bietarako menderagailu bakarra, baina, hemen ere, bada alde bat bien artean: ezezkoetan (55b) (eta galderetan) menpeko perpausoko aditza subjuntiboz markatzen da, baiezkoetan (55a) ez bezala.

3.3. *Euskara-gaztelania KONPS nahasietarako aurreikuspenak*

Aurretik aipatu bezala, konplementatzaile-morfemaren bikoizketa hainbat hizkuntzatan dokumentatu den arren (ingeleza-koreera (Park 1990), tamil-ingeleza (Sankoff et al. 1990; Sankoff 1998), ingeleza-japoniera (Azuma 1990, 1993), euskara-gaztelania (Etxebarria 2003; Rotaetxe 1999)), nik dakidala ez da apenas aztertu, ezpada gai orokarrago baten barruan (Hicks 2010, 2012; Chan 2015). Oso gutxi landu den gaia da morfema-bikoizketarena (Amuzu 2009; Hicks 2010, 2012; Chan 2015; Goldrick et al. 2016), eta are gutxiago konplementatzaile morfema-bikoizketarena zehazki. Gainera, orain arteko KAren inguruko teoriak (Poplack 1980;

Mahootian 1993; Chan 2015; Myers-Scotton 1993, 2005; Myers-Scotton & Jake 1995, 2009; MacSwan 2000, beste batzuen artean) ezin dute fenomenoaz azaldu.

Hala ere, bada morfema-bikoizketa ahalbidetzen duen prozesua azaldu nahi izan denik; beste batzuen artean, Azuma 1993; Myers-Scotton 1993, 2005; Myers-Scotton eta Jake 1995, 2009; Amuzu 2009, etab.¹⁴. Hauek hizkuntzako elementu desberdinen (i. e. kategoria lexiko eta funtzionalak) aktibazioa maila desberdinetan gertatzen dela argudiatu izan dute eta fenomeno honen bidez hizkuntzaren prozesamendua azaltzen saiatu dira. Hain zuzen ere, fenomeno hau aztertzeak horretarako aukera emango du.

Konplementatzaile morfema bikoizketa interesgarria izan liteke, Myers-Scottonek (2005) dioen bezala, Konplementatzaile Sintagma baita elementu lexikoek proiektatu dezaketen unitaterik gorenena. Gauzak horrela, KONPS baten barruan, autorearen arabera, marko gramatikala ezartzen duen hizkuntza bat eta bera da. Baina, bikoizketa baten aurrean, gauzak ez dira hain garbiak: markoa ezartzen duen morfema bikoiztuta agertzen baita, bi hizkuntzetan. Egitura hauek aztertzeak, beraz, aukera eman dezake ulertzeko, hizkuntzaren prozesamenduan, elebidunen bi hizkuntzen (edo gehiagoren) arteko “lehia” edo harreman horretan, hauek nola funtzionatzen duten eta hizkuntzaren ekonomiarekin (MacSwan 2000, Chan 2015) lotuz, zer dela eta agertzen diren bikoiztuta, funtzio bakarra betetzen duen morfema bi egotea, printzipioz, erredundantea baita (Amuzu 2009) eta ez bailitzateke espero izatekoa. Hala ere, gertatu egiten da.

Gainera, euskara-gaztelaniaren kasuan bereziki interesgarria da fenomeno hau bi hizkuntzek erakusten duten aurkakotasun tipologikoagatik, batez ere, buru-parametroari dagokionez. 3.2 atalean ikusi denez, euskara buru-azkena da eta gaztelania buru-lehena. Hala ere, euskararen baitan, konplementatzaile morfema batzuek, baldintzazko menderagailuak eta kausalak (ikus 3.2.1) orokorpen horren aurkako hurrenkera erakusten dute eta bat egiten dute gaztelaniazko egiturekin. Hori dela euskara-gaztelania KONPS nahasiak aztertzeak informazio baliagarria eman dezake egitura hauen funtzionamendua ulertzeko.

Lan honetan, aztergaia murrizte aldera, mendeko perpaus jokatuen artetik, mendeko perpaus osagarriak eta baldintzazkoak baino ez dira aztertuko, hain zuzen ere, aipatutako bi perpaus mota horiek euskaraz erakusten duten jokaeragatik, bata osagarriaren atzetik kokatzen da (mendeko perpausa osagarriak eratzeke konplementatzailea) eta bestea osagarriaren aurretik

¹⁴ Nishimurak (1995) ere bilatzen dio azalpena bikoizketari, baina berak ikuspegi soziolinguistikoa hartzen du, gainerakoek ez bezala.

(baldintzazko mendeko perpasuak eratzeko konplementatzailea). Ikergaia gehiago mugatzeko, osagarrien eta baldintzazkoen barruan, menderagailu erabilienak hartuko dira: euskaraz *-(e)la* eta *ba-* menderagailuetara mugatuko da ikerketa, gaztelaniaz, berriz, *que* eta *si* hartuko dira.

Ikerketa-proposamen honen helburu nagusia, beraz, euskara-gaztelania KONPS nahasiak zehaztasunez deskribatzea eta azaltzen saiatzea da, betiere menpeko perpaus osagarri eta baldintzazkoetara mugatuz.

KONPS nahasi horien artean, batzuek KONP morfema bikoiztuta daukate (ikus 2. atala) eta egitura horiek nolakoak diren eta zergatik batzuetan bikoizketa posible den eta beste batzuetan ez ere aztertu nahi da. Horretarako, juzkuen ariketa baten bidez KArako eta zehatzago morfema-bikoizketarako emandako teoria eta murriztapen nagusien (Poplack 1980, Myers-Scotton 1993, Azuma 1993, MacSwan 2000, Chan 2015) arabera aurreikuspenak aztertzeko esperimentu bat diseinatu dut. Juzkuek aukera emango dute ebidentzia positiboaz gain, hiztunek onartzen ez dituzten KONPS nahasiei buruzko informazioa ere jasotzeko.

Mendeko perpaus osagarriak eta baldintzazkoak eratzeko konplementatzaileek berdin jokatzeko duten ere ikusiko da, esan nahi baita, ea KONPS nahasiak eratzeko mendeko perpaus osagarriak eta baldintzazkoak berdin erabiltzen dituzten hiztunek. 3.1 atalean aurkeztutako adibideetan esaterako, badirudi mendeko perpaus osagarriak direla emankorrenak, baina besteen adibiderik ez aurkitzeak ez du esan nahi sor ezin daitezkeenik.

Halaber, KAren barruko egitura horiek zerk baldintzatzen dituen aztertu nahi da eta KONPS nahasietan eta KONP bikoizketetan zein murriztapen dauden ikusi. Ez hori bakarrik, bikoizketaren eta bikoizketa ezaren artean, berri-emailek zein hobesten duten ere jakin nahi da. Horrela, bikoizketa hori ezinbestekoa den testuingururik dagoen ikusi nahi da eta kontrara, ea ba al dagoen testuingururik non ezin diren inoiz bi konplementatzaile agertu funtzio bera betetzen.

Azken helburu bat ere badauka ikerlan honek: 1.2 atalean aurkeztutako murriztapenen eta 2.2 ataleko teorien artean zeinek azaltzen dituen ongien euskara-gaztelania KONPS nahasiak ikustea.

Laburbilduz, hauek dira euskara-gaztelania KAri dagokionez ikerlan honetan erantzun nahi liratekeen ikerketa-galderak:

1. Zer nolakoak dira KONPS nahasiak euskara-gaztelania KAn?

2. Zein murriztapenek baldintzatzen dute konplementatzaile morfemaren bikoizketa agertzea euskara-gaztelania KAn eta alderik al dago KONP buruak euskaraz duen posizioaren arabera (osagarriak vs. baldintzazkoak)?
3. Zein esaldi mota hobesten da euskara-gaztelania KAn: konplementatzaile bikoizketaduna ala gabea?
4. Zein teoriak eskaintzen du azalpen onena KONPS nahasiei dagokienez?

Hurrengo orrietan galdera horiek erantzuten saiatuko naiz 1.2 eta 2.2 ataletan aurkeztutako teoria eta murriztapenen arabera, euskara-gaztelania KONPS nahasietarako (perpau osagarriak eta baldintzazkoak) aurreikuspenak eginez.

*MLF*ren (Myers-Scotton 1993, 2005; Myers-Scotton & Jake 1995, 2009) barruan hiru printzipio aurkeztu dira: morfologia bikoitzaren printzipioa, morfema hurrenkeraren printzipioa¹⁵ eta sistema morfemen printzipioa. Morfologia bikoitzaren printzipioaren arabera, morfema bat bikoiztuta agertzen denean, gainerako sistema morfemen hizkuntzako dena izango da HMkoa, nahitezkoa, eta beraz, bestea erredundantea. Horren arabera, menpeko perpau osagarri eta baldintzazkoei dagokienean, bikoizketak onartu, onartzen dira, baina bikoizketarik gabeko KONPS nahasiak hobesten dira. Halaber, 1 eta 2 tauletan agertzen diren konbinazio posible guztien artean, perpau nagusiko aditz jokatuaren hizkuntza hartuko dugu HMTzat. Gauzak horrela, perpau nagusiko aditz jokatu gaztelaniaz bada, gaztelaniazko KONP izango da nahitaezko (56a) eta alderantziz, perpau nagusiko aditz jokatu euskaraz bada, KONP ere euskarazkoa izango da nahitaezko (56b). KONP bakarra duten KONPS nahasietan, aldiz, (57a) modukoak hobetsiko dira, (57b) modukoen aurka, menderagailua perpau nagusiaren hizkuntzan joan behar baita.

(56) a. *Amaia ha dicho que* gozokia nahi duela

b. *Si bavienes*, hondartzara joango gara

(57) a. Amaiak esan du *quierela* el caramelo a'. *Si* zatoz, *iremos a la playa*

b. Amaiak esan du *que quiere el caramelo* b'. *Bazatoz, iremos a la playa*

¹⁵ Myers-Scottonen (1993, 2005) morfema hurrenkeraren printzipioari eta Chanen (2008, 2015) buru funtzionalen murriztapenari jarraituz (baita Santorini eta Mahootian 1995, apud MacSwan 2000; MacSwan 2000, Hicks 2010, 2012, besteak beste), KONPS nahasietan, bikoiztutako morfemak osagarriaren alde banatara kokatuko dira, gaztelaniazko KONP aurretik eta euskarazkoa atzetik, buru-funtzionalei dagokien hitz-hurrenkera errespetatuz. Hori dela eta, 1. eta 2. tauletan sartu diren egitura guztiak izango lirakeke onargarriak, baina ez esperimendu honetatik kanpo utzi diren “Amaiak esan du *-ela* gozokia nahi du *que*”, edo “zatoz ba- *si, iremos a la playa*” bezalakoak. Murriztapen horiek oinarri, hauek ez dira testatuko, esperimendu honetan behintzat, bestela ikergai izango lirakekeen esaldiak bikoiztu egingo lirakeke.

MLFko azken printzipioaren arabera, sintaktikoki beharrezkoak diren morfema guztiak, hau da, sistema morfemak, HMTik hartuak izan behar dira. Kasu honetan, bikoizketak ez dira onartzen eta (58) bezalako KONPS nahasiak ere ez. Sistema morfemen printzipioa aintzat hartuz, HM euskara denean, ez litzateke gaztelaniazko konplementatzaileak agertu beharko (58a), ezta euskarazkorik ere HM gaztelania denean (58b).

- (58) a. Amaiak esan du *que* gozokia nahi du
a'. *Si* zatoz, hondartzara joango gara
b. *Amaia ha dicho quierela el caramelo* b'. *Bavienes, iremos a la playa*

*The Null Theory*ren eta minimalismoaren arabera, gramatika elebakarrak bezala funtzionatzen du elebidunak ere. Beraz, kontuan hartzen badugu, mota honetako bikoizketarik ez dagoela sistema elebakarretan (cf. Hicks 2010, Chan 2015), hizkuntza ekonomiaren aurka joango bailitzateke, espero izatekoa da, teoria hauen arabera, bikoizketarik ez egotea edo onargarritasun txikiagoa jasotzea. Hortik KONPS nahasiei buruz aurreikus daiteke hizkuntza bien murriztapenak (hitz hurrenkera, besteak beste) errespetatuz, 1 eta 2 tauletako KONP bakarreko egitura guztiak onargarrizat joko dituztela parte-hartzaileek.

Horrez gain, MacSwanek (2000) aipatzen du morfema lotuak direnean KAn parte hartzen dutenak, muga fonologikoa dela eta, ezin direla (59) bezalakoak sortu, ahoskaezinak bailirateke. Ideia hori Epelde eta Oyharçabalen (2010) lanean ere agertzen da, euskara-frantsesari dagokionez. Hala ere, euskara eta frantsesaren kasuan ez bezala, euskara eta gaztelaniaren antzekotasun fonologikoagatik, ez genuke esperoko, teoria honen arabera, mota horretako esaldiak onargaitzat jotzea.

- (59) a. Amaiak esan du *quierela el caramelo*
b. *Bavienes*, hondartzara joango gara

Poplacken (1980) baliokidetasun murriztapenaren arabera, hizkuntzek bat egiten ez duten gramatikaren puntuetan ezin da KArik gertatu. Ondorioz, ez litzateke morfema-bikoizketarik esperoko, ezta euskara-gaztelania KONPS nahasirik ere KONP buruaren eta bere osagarria den INFLSren artean (60a), baina bai baldintzazkoetan (ikus 3.2) (60b).

- (60) a. Amaiak esan du *que* gozokia nahi du
b. *Si* zatoz, *iremos a la playa*

Poplacken (1980) bigarren murriztapena morfema askearena da. Horren arabera, KA morfema askeen artean bakarrik gerta daiteke eta beraz (61) modukoak onargariak lirateke,

baina ez (62) bezalakoak. Hortik ondoriozta dezakegu, konplementatzailearen bikoizketa gerta dadin, menpeko perpausa euskaraz joan behar dela, euskaraz KONP morfema lotua baita; perpaus nagusiak, berriz, ez dauka horrelako murriztapenik.

- (61) a. *Amaia ha dicho que gozokia nahi duela*
a'. *Amaia ha dicho gozokia nahi duela*
b. *Si bazatoz, hondartzara joango gara* b'. *Si zatoz, iremos a la playa*
- (62) a. *Amaiak esan du que quierela el caramelo*
a'. *Amaia ha dicho quierela el caramelo*
b. *Si bavienes, iremos a la playa* b'. *Bavienes, hondartzara joango gara*

Azumaren (1993) hitzaren kategoriaren araberako murriztapenak minimalismoaren aurreikuspen bera egiten du bikoizketarik gabeko KONPS nahasiei buruz, hots, denak direla onargarriak, baina beste arrazoi batengatik, hau da, kategoria irekiko hitzak dira hizkuntza aldaketa eragin dezaketen bakarrak.

Morfema-bikoizketari dagokionez, murriztapen honek bi baldintza ditu: batetik, KAn parte hartzen duten hizkuntzek kontrako hitz hurrenkera izan behar dute eta, bestetik, partekatutako elementua kategoria irekikoa izan behar da. Menpeko perpaus osagarriaren kasuan, lehenengo baldintza betetzen da (ikus 3.2) eta esperimenturako erabiliko diren adibideek bigarrena ere betetzen dute, partekatutako elementua aditza baita. Ondorioz, (63) bezalakoak onargarritzat jotzea espero da. Baldintzazko menpeko perpausari dagokienez, ez dute aurkako hitz hurrenkerarik bi hizkuntzetako morfemek (ikus 3.2), beraz, horiek, osagarriak ez bezala, onargaitzat jotzea espero da (64).

- (63) a. *Amaiak esan du que gozokia nahi duela*
b. *Amaiak esan du que quierela el caramelo*
c. *Amaia ha dicho que quierela el caramelo*
d. *Amaia ha dicho que gozokia nahi duela*
- (64) a. *Si bazatoz, hondartzara joango gara*
b. *Si bavienes, hondartzara joango gara*
c. *Si bavienes, iremos a la playa*
d. *Si bazatoz, iremos a la playa*

Oro har, morfologia bikoitzaren eta sistema morfemen printzipioen, *null theory* eta minimalismoaren, baliokidetasun eta hitzaren kategoriaren araberako murriztapenen arabera,

espero dena da berri-emaileek bikoizketarik gabeko esaldiak hobestea (65a) konplementatzaile morfema bikoiztua agertzen direnekoen aldean (65b).

- (65) a. *Amaia ha dicho* gozokia nahi duela a´. *Bazatoz, iremos a la playa*
b. *Amaia ha dicho que* gozokia nahi duela b´. *Si bazatoz, iremos a la playa*

Lanean ikusi dugu bikoizketa gertatzeko aurkako hitz hurrenkera izan behar dutela bi hizkuntzek. Baldintzazkoen kasuan, bikoizketa horiek txartzat jotzea espero da, edo onargarritasun txikiagoa izatea, kasu honetan hitz hurrenkerak ez direlako aurkakoak (66a). Osagarriak, aldiz, onartzea espero da (66b). Ikus 2. taulan desberdintasunak zuziz.

- (66) a. *Si bavienes, iremos a la playa*
b. *Amaia ha dicho que quiere la el caramelo*

Guzti hau kontuan hartuta, onargarritasun-mailaren arabera gradazio bat egin daiteke. Horren arabera, aztergai izango diren esaldi guztien artean, onargarritasun altuena dutenak (67) modukoak lirateke, bikoizketarik gabeko baldintzazko perpausak, perpaus nagusia eta konplementatzailea gaztelaniaz dutenak eta menpekoea euskaraz. Teoria guztien arabera, esperimentuko parte-hartzaileek hauek ontzat joko lituzkete. Bigarren maila batean egongo lirateke (68) bezalakoak, hauek ere, nahiko onargarriak, kasu bakoitzean teoria bakarra da onargaitzat jotzen dituenak. (69)ren antzekoak ere nahiko onargarriak dira aipatutako teoria eta murriztapenek egiten dituzten aurreikuspenen arabera, baita (70)en estilokoak ere, teorien erdiek onargarriztat jotzen baitituzte. (71)ren modukoak ez dira oso onargarriak landutako teoria eta murriztapenen arabera, baina bai konplementatzaile-bikoizketa dutenen artean onargarrienak. (72) bezalakoak perpaus mota bakoitza teoria bakarrak jotzen du onargarriztat. Azkenik, teoria guztien arabera, parte-hartzaileek guztiz baztertuko dituzte (73) bezalako konplementatzaile-bikoizketadun baldintzazko perpausak; kasu horretan, berdindio perpaus nagusia zein hizkuntzatan dagoen, menpeko perpausa gaztelaniaz badago eta euskara eta gaztelaniako konplementatzaileak biak agertzen badira, hiztunek ez lituzkete onartuko, aztertutako teoria eta murriztapenen arabera, betiere. Agerian dago teoriak ez dituztela konplementatzaile-morfema bikoizketak aurreikusten, edo ez behintzat bikoizketarik gabeko esaldiak baino onargarriagozat jotzen.

- (67) *Si zatoz, iremos a la playa*
(68) a. *Bavienes, hondartzara joango gara*
b. *Amaia ha dicho que* gozokia nahi du

- (69) a. *Si zatoz, hondartzara joango gara*
 b. *Si vienes, hondartzara joango gara*
 c. *Bazatoz, iremos a la playa*
 d. *Amaiak esan du, quierela el caramelo*
- (70) a. *Bavienes, iremos a la playa*
 b. *Amaiak esan du que gozokia nahi du*
 c. *Amaiak esan du que quiere el caramelo*
 d. *Amaia ha dicho gozokia nahi duela*
- (71) a. *Amaiak esan du que gozokia nahi duela*
 b. *Amaia ha dicho que gozokia nahi duela*
 c. *Amaia ha dicho quierela el caramelo*
- (72) a. *Si bazatoz, hondartzara joango gar*
 b. *Si bazatoz, iremos a la playa*
 c. *Amaiak esan du que quierela el caramelo*
 d. *Amaia ha dicho que quierela el caramelo*
- (73) a. *Si bavienes, hondartzara joango gara*
 b. *Si bavienes, iremos a la playa*

Ikus daitekeenez, egitura bera duten (i. e. perpaus nagusiaren eta menpekoaren hizkuntza, konplementatzaileen hizkuntza) menpeko perpaus osagarriak eta baldintzazkoak ez daude inoiz maila berean egindako hierarkia horretan. Nahiz eta egituraz berdinak izan, aipatutako teoria eta murriztapenek onargarritasun-maila desberdina aurreikusten dute mota bientzako.

Hurrengo orrialdeetan agertzen diren bi tauletan, azaldu berri ditudan aurreikuspenak jaso dira eskematikoki, esaldi mota eta teoria guztien arabera.

Teoria eta murriztapenak		Menpeko perpaus osagarriak									
		Amaiak esan du que gozokia nahi duela	Amaiak esan du que quierela el caramelo	Amaia ha dicho que quierela el caramelo	Amaia ha dicho que gozokia nahi duela	Amaiak esan du que gozokia nahi du	Amaiak esan du que quiere el caramelo	Amaiak esan du quierela el caramelo	Amaia ha dicho quierela el caramelo	Amaia ha dicho que gozokia nahi du	Amaia ha dicho gozokia nahi duela
MLF	Morfologia bikoitzaren printzipioa	<i>-(e)la</i> nahitaezkoa <i>que ez</i>	<i>-(e)la</i> nahitaezkoa <i>que ez</i>	<i>que</i> nahitaezkoa <i>-(e)la</i> ez	<i>que</i> nahitaezkoa <i>-(e)la</i> ez	KONP bakarra -	KONP bakarra -	KONP bakarra +	KONP bakarra -	KONP bakarra +	KONP bakarra -
	Sistema morfemen printzipioa	-	-	-	-	-	-	+	-	+	-
The Null Theory Minimalismoa		-	-	-	-	+	+	+	+	+	+
KAKo murriztapen gramatikalklasikoak	Baliokidetasun murriztapena	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
	Morfema askearen murriztapena	+	-	-	+	+	+	-	-	+	+
	Hitzaren kategoriaren araberako murriztapena	+	+	+	+	+	+	+	+	+	+
Onargarritasun-maila		2	1	1	2	3	3	4	2	5	3

1. taula: KONPS nahasiaren teoria eta murriztapenen araberako aurreikuspenak, mendeko perpaus osagarriari dagokienez

Teoria eta murriztapenak		Menpeko baldintzazko perpausak									
		Si bazatoz, hondartzara joango gara	Si bavienes, hondartzara joango gara	Si bavienes, iremos a la playa	Si bazatoz, iremos a la playa	Si zatoz, hondartzara joango gara	Si vienes, hondartzara joango gara	Bavienes, hondartzara joango gara	Bavienes, iremos a la playa	Si zatoz, iremos a la playa	Bazatoz, iremos a la playa
MLF	Morfologia bikoitzaren printzipioa	<i>ba-</i> nahitaezko <i>si</i> ez	<i>ba-</i> nahitaezko <i>si</i> ez	<i>si</i> nahitaezko <i>ba-</i> ez	<i>si</i> nahitaezko <i>ba-</i> ez	KONP bakarra -	KONP bakarra -	KONP bakarra +	KONP bakarra -	KONP bakarra +	KONP bakarra -
	Sistema morfemen printzipioa	-	-	-	-	-	-	+	-	+	-
<i>The Null Theory</i> Minimalismoa		-	-	-	-	+	+	+	+	+	+
KAKo murriztapen gramatikal klasikoak	Baliokidetasun murriztapena	-	-	-	-	+	+	+	+	+	+
	Morfema askearen murriztapena	+	-	-	+	+	+	-	-	+	+
	Hitzaren kategoriaren araberako murriztapena	-	-	-	-	+	+	+	+	+	+
Onargarritasun-maila		1	0	0	1	4	4	5	3	6	4

2. taula: KONPS nahasi en teoria eta murriztapenen araberako aurreikuspenak, menpeko baldintzazko perpausai dagokienean

3.4. Ikerketa esperimentalaren diseinua

Atal honetan KONPS nahasiak ikertzeko eta 3.3.ko aurreikuspenak aztertzeko esperimentu baten diseinua proposatuko da. Nahiz eta esperimentu hau ez den aurrera eramango, bertan zehaztuko da esperimentua egiteko aurreikusi den diseinua, hots, parte-hartzaileen profila, materialak eta prozedura.

3.4.1. Parte-hartzaileak

Esperimentu honetan parte hartzeko berriemaileen profila honakoa izango litzateke: euskara eta gaztelania hizkuntza biez hiru urte baino lehenago jabetu direnak, txikitatik euskaraz eskolatuak eta ikasketak euskaraz egin dituztenak. Egunerokotasunean testuinguru informaletan, bi hizkuntzak eta, bereziki, KA erabiltzen dituztenak (cf. Vanden Wyngaerd 2016; Vergara 2017; Badiola & Sande 2018).

Garrantzitsua da esperimentuan parte hartzen dutenek KArekiko zein esposizio maila izan duten eta zein jarrera dituzten ezagutzea (Liceras, Fernández-Fuertes, Perales, Pérez-Tattam & Spradlin 2008; Parafita-Couto & Stadthagen-Gonzalez 2017; Beatty-Martínez et al. 2018). Izan ere, KAren ohiko erabiltzaileak hartzea garrantzitsua da fenomenoak gizartean duen onargarritasuna zalantzazkoa baita eta egitura guztiak txartzat ematea saihestu nahi baita (Parafita-Couto, Deuchar et al. 2015). Horrek berriemaileak testuinguru soziolinguistiko elebidunean bizitzea eskatuko luke. Horretarako parte-hartzaileak hautatzerakoan hori kontuan hartuko litzateke eta gero, esperimentua egin ostean, parte-hartzaileei galdetegi bat betetzeko eskatuko litzaieke. Galdetegi hori Parafita-Couto, Munarriz et al. (2015) lanetik hartua izan daiteke.

KA gazte-hizkeraren ezaugarritzat hartzen denez (Muñoa-Barredo 2003; Ibarra 2011) esperimentu honetarako berriemaileen adin-tartea 20-30 urte bitartekoa izango litzateke.

